



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko abenduaren 29a

150. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko abenduaren 23an egindako Osoko Bilkuran, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko abenduaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legea

I. TITULUA

Kredituak eta horien aldaketak

I. KAPITULUA

Hasierako kredituak eta horien finantzaketa

1. artikulua. Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

1. Onetsi egiten dira 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Atal hauek dituzte:

a) Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren erakundearen aurrekontuak.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontua.

c) Nafarroako Kontseiluaren aurrekontua.

d) Foru Komunitateko fundazio publikoen aurrekontuak.

e) Foru Komunitateko sozietate publikoen aurrekontuak.

Halaber jasoko da Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren aplikazio eremuan dauden beste subjektu eta entitate batzuen

aurrekontuei buruzko informazioa, horren 6.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. artikulua. Kredituen eta eskubide ekonomikoen zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetze aldera, onesten dira 5.273.126.597 euroko zenbateko bateratua duten kredituak.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako diru-sarreraren egoera-orrietan agertzen dira aurrekontu ekitaldi honetan likidatu asmo diren eskubide ekonomikoen zenbatespenak; hain zuzen ere, haien zenbateko bateratua 5.273.126.597 eurokoa da.

3. Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat, gastu ez-finantzarioaren muga, behin Toki Ogasunen Funtsa eta Estatuarentzako ekarpena deskontatu ondoren, 3.922.275.084 eurokoa da, baturik diru-sarrera ez-finantzarioak, kontabilitate nazionalaren doikuntzak eta baimendutako defizita.

II. KAPITULUA

Aurrekontu-kredituen aldaketa

3. artikulua. Aurrekontu-kredituen aldaketa.

Aurrekontu-kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko aginduen arabera izanen dira, foru lege honek agindu horiek aldatzen ez dituen heinean.

Aurrekoa gorabehera, ez dira aurrekontu-aldaketatzat hartuko partiden arteko funts mugimenduak, baldin eta, partidetan agertzen diren kredituek helburu bera izanik, partida ezberdinetan kokatuta badaude Europar Batasunak gastuen erabilera hobeto kontrolatzearren halaxe eskatzeagatik, gastuak hein batean hark kofinanzatuak izatearen ondorioz.

Partida zer departamenturi dagokion, departamentu horren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

4. artikulua. Europar Batasuneko programen aurrekontu-aldaketak.

1. Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiak txostena egin ondoren, zilegi izanen du beharrezkoak diren aurrekontu-aldaketak baimentzea, beharrezkoak direnean Europar Batasunak kofinantzatutako programak eta proiektuak ahalik eta hobekien betetzeko ekitaldian zehar, jarraituz Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo jarraipen batzordeek edo Batzordeak berak ondoren eginiko aldaketei. Aurrekontu-aldaketak gastuen egoera-orrietan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

2. Kreditu-aldaketak eragin zuzena badu Europar Batasunak kofinantzatzen dituen proiektuak biltzen dituzten partidetan, aldez aurretik Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko da. Salbuetsirik daude Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsak (LGENF) kofinantzatutako kredituei eragiten dieten aldaketak.

5. artikulua. Kreditu-zabalpenak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 47. artikuluko 1. apartatuko a)tik g)ra bitarteko letretan aipatutako kredituez gain, 2022ko ekitaldirako zabalgarritzat joko dira lehendik dauden edo ekitaldian sortu behar diren partida guztiak, xede dutenak terrorismoaren biktimak edo indarreko legedian jasotako motibazio politikoko ekintzen biktimak aintzatestearen eta horiei erreparazioa ematearen ondorioz onets litezkeen dirulaguntza eta maileguak ematea, bai eta Gizarte Segurantzako kotizazioen ordainketari dagozkion partida guztiak ere.

Horiez gain, zabalgarriak izanen dira, 2022ko ekitaldirako, koronabirusaren aurkako borrokarako neurri bereziak finantzatzeko helburua duten partida guztiak, bai lehendik daudenak bai ekitaldian sortu direnak, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan jasotako mugak izan gabe; partida horien izena "COVID-19" izanen da.

Gainera, zabalgarriak izanen dira, 2022ko ekitaldirako, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluko mugak izan gabe, Osasunbidea-Nafarroako

Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrendak murrizteko neurriak finantzatzeko partida guztiak, lehendik daudenak edo ekitaldian horretarako sortu behar direnak; partida horiek "Itxarote-zerrendak" izena izanen dute.

Aurrekoez gainera, honako hauek ere zabalgarritzat joko dira:

1. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko partida hauek:

a) 020002-04100-1001-921400 partida, "Nafarroako Gobernuko lehendakari ohi, kontseilari ohi eta beste goi-kargudun batzuentzako prestazioak" izenekoa.

b) 020002-04100-1620-921400 partida, "Langileen arloko erabakiak aplikatzeko funtsa" izenekoa.

c) 020002-04100-1800-921400 partida, "Zerbitzuak, osagarri berriak, familia-laguntza, gradua, antzinatasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk aitortzea" izenekoa.

d) 020002-04100-1800-921402 partida, "Ordainsari-igoera" izenekoa.

e) 020002-04100-1810-921400 partida, "Langileen ordainsariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoa.

f) 020002-04100-1820-921403 partida, "Lan istripuengatik kalte-ordainak" izenekoa.

g) 020002-04300-1614-211100 partida, "Aldez aurretik erretiratzeagatik jaso beharreko kalte-ordainak" izenekoa.

h. Nafarroako Foru Komunitateko ikus-entzunezko edukien agregatzaile baten bideragarritasun plana.

i) 051000-02100-2274-132103 partida, "Genero indarkeriatik babesteko segurtasun zerbitzuak" izenekoa.

2. Ekonomia eta Ogasun Departamentuko partida hauek:

a) 100000-10000-4709-441100 partida, "Audena. Merkataritza-politika" izenekoa.

b) 110003-11500-3509-923700 partida, "Kontu korrante eta antzekoetako saldoengatik ordainaria" izenekoa.

c) 110003-11500-3101-951102 partida, "Interesak eta kreditu komisioak" izenekoa.

d) 111002-11300-6002-923100 partida, "Lurra eta natur ondasunak" izenekoa.

e) 111002-11300-6020-923100 partida, “Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma” izenekoa.

f) 111002-11300-6020-923104 partida, “Higieinei buruzko Plana. Administrazio bulegoak” izenekoa.

g) 111002-11300-6050-923100 partida, “Higieinei buruzko Plana. Eraikin eta obretako altzariak eta ekipamendua” izenekoa.

h) 111002-11300-8500-923100 partida, “Sektore publikoko akzioen erosketa” izenekoa.

i) 151000-17300-2273-923400 partida, “Enkargua TRACASA Instrumental sozietateari. Tributuaren arloko informazio sistemetan datu fiskalak jasotzea eta integratzea” izenekoa.

j) 155003-17800-2272-932103 partida, “Zordun fiskalen ondasunen gaineko kargak eskuratzea” izenekoa.

k) 155003-17800-3501-932100 partida, “Berandutze-interesak sarrera bidegabeen eta zergen itzulketetan” izenekoa.

3. Lurralde Kohesiorako Departamentuko partida hauek:

a) 210001-21100-4609-942300 partida, “Toki entitateentzako konpentsazioa toki tributuetako hobariengatik” izenekoa.

b) 211001-21200-4600-942108 partida, “Udalentzako ekarpena, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren eraginez sarrerak galtzeagatik” izenekoa.

c) 220000-22000-6010-453300 partida, “Prezioen berrikuspina” izenekoa.

d) 220003-22200-2090-453200 partida, “A-12 Iruña-Logroño autobiaren kanona” izenekoa.

e) 220003-22200-2090-453202 partida, “A-21 Pirinioetako autobiaren kanona” izenekoa.

f) 220003-22200-6010-453305 partida, “Errepide sarearen zainketa eta kontrol zentroa” izenekoa.

g) 220003-22200-6010-453306 partida, “Zoruak sendotzea” izenekoa.

h) 220004-22100-4700-452100 partida, “Nafarroako Ubidearen ureztaketaren kanona. Handitzearen 1. fasea” izenekoa.

4. Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuko partida hauek:

a) 320000-32100-4809-261400 partida, “Etxebizitzaren errentarientzako dirulaguntzak” izenekoa.

b) 320000-32100-7800-261400 partida, “Etxebizitzaren arloko jardueretarako dirulaguntzak eta subsidioak” izenekoa.

5. Hezkuntza Departamentuko partida hauek:

a) 400000-40100-3501-321100 partida, “Berandutze-interesak” izenekoa.

b) 400000-41000-1220-322000 partida, “Aldi baterako lan-kontratudunen ordainsariak” izenekoa.

c) 400000-41000-1800-322000 partida, “Zerbitzuak, osagarri berriak, familia-laguntza, gradua, antzinasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk aitortzea” izenekoa.

d) 400000-41000-1810-322000 partida, “Langileen lansariak, aurreko ekitaldietakoak” izenekoa.

e) 400000-41000-1820-322000 partida, “Epaia betearaztea eta beste kalte-ordain batzuk” izenekoa.

f) 410002-41600-4609-322000 partida “DBHko ikasleak eskolatzen diren toki entitateentzako transferentziak” izenekoa.

g) 410002-41600-6081-322000 partida, “Ikasli-buruen doakotasunerako plana” izenekoa.

h) 410002-41600-7811-322000 partida, “Ikasli-buruen doakotasunerako programa” izenekoa.

i) 410004-41600-2210-324100 partida, “Jantokiak” izenekoa.

j) 410004-41600-2230-324100 partida, “Eskola-garraioa” izenekoa.

k) 410004-41600-2230-324102 partida, “Hezkuntza bereziko eskola-garraioa” izenekoa.

l) 410004-41600-4800-324100 partida, “Eskola-garraiorako banakako laguntzak” izenekoa.

m) 410004-41600-4800-324102 partida, “Jantokietarako banakako laguntzak” izenekoa.

n) 410004-41600-4800-324103 partida, “Ikastetxera iristeko zailtasunak dituzten ikasleentzako garraiorako laguntzak” izenekoa.

ñ) 420007-42900-4609-322100 partida, “Udalekiko hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeak” izenekoa.

o) 410003 proiektukoak, “Irakaskuntza pribatu itundurako eta parekaturako dirulaguntzak” (kode ekonomikoa: 4811).

6. Osasun Departamentuko partida hauek:

a) Honako kode ekonomikoak dituzten 54. programa-multzokoak: 2210, 2213, 2214, 2215, 2216, 2286, 2287 eta 2500. Halaber, 52. programa-multzoaren barruan 2215 kode ekonomikoari dagozkionak ere.

b) 520001-51200-2269-313902 partida, "Droga-mendekotasunaren aurkako III. Foru Plana (DFP)" izenekoak.

c) 540000-52000-1800-311100 partida, "Zerbitzuak, osagarri berriak, familia-laguntza, gradua, antzinasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk aitortzea" izenekoak.

d) 540000-52000-1810-311100 partida, "Langileen lansariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoak.

e) 540002-52833-4809-311104 partida, "Protesiak, ortesiak eta desgaitasuna dutenentzako ibilgailuak" izenekoak.

f) 540005-52831-4809-313100 partida, "Farmaziako prestazioak" izenekoak.

g) 540005-52831-4809-313102 partida, "Xurgatzaileak eta beste produktu sanitario batzuk" izenekoak.

h) 540005-52831-4809-313103 partida, "Farmazia-prestazioak - koordinketa arautzea" izenekoak.

i) 543000-52200-6057-312802 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoak.

j) 543004-52214-2276-312700 partida, "Plasma zatitzeko lanak, farmakoak ekoizteko" izenekoak.

k) 545000-52400-6057-312803 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoak.

l) 546000-52500-6057-312803 partida, "Kirurgia-tresnak" izenekoak.

7. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko partida hauek:

a) 710000-71200-4700-412100 partida, "Lan-daketak erauzteagatiko kalte-ordainak" izenekoak.

b) 710000-71200-4700-412107 partida, "Apar-teko uholdeak direla-eta azpiegitura pribatuetan izaniko kalteak eta errenta-galera arintzeko laguntzak" izenekoak.

c) 710001-71200-4700-414210 partida, "Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez" izenekoak.

d) 710004-71300-2279-412205 partida, "Larrialdiko txertaketa ofizialak" izenekoak.

e) 710004-71300-7700-412200 partida, "Kalte-ordaina abereak epizootien ondorioz hil behar izateagatik, etaazienda mugitzeko debekuaren ondorioz lortu gabeko irabazientzat" izenekoak.

f) 710006-71500-4700-414100 partida, "Nafarroako Ubidearen ureztaketan kanona" izenekoak.

g) 710006-71500-7609-414402 partida, "Apar-teko uholdeak eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura publikoetarako laguntzak" izenekoak.

h) 710006-71500-7700-414400 partida, "Apar-teko uholdeak eta suteek kaltetutako nekazaritza-azpiegitura pribatuetarako laguntzak".

i) 710006 71500 7819 414100 partida, "Ureztatzaileen Elkarteen nekazaritza azpiegiturak konpontzea, aparteko uholdeengatik" izenekoak.

8. Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko partida hauek:

a) 810001-81100-4819-422203 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak" izenekoak.

b) 810001-81100-7819-422200 partida, "Eskualdeetako plan estrategikoak. Proiektuak" izenekoak.

c) Automobilaren sektorearentzako laguntzak.

d) Hornidura-problemek ukituriko enpresentzako laguntzak.

9. Eskubide Sozialetako Departamentuko partida hauek:

a) 2600 kode ekonomikokoak, 900000, 900003, 920005, 920006 eta 920008 proiektuetan daudenak eta prestazio bermatuak finantzatzeko erabiliko direnak. Prestazio horiek ezarrita daude ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan, zeinaren bidez onetsi baitzen gizarte zerbitzu orokorren zorroa, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Legean ezarritakoa.

b) 900002-91100-4809-212100 partida, "Kotizazio gabeko pentsioak" izenekoak.

c) 900002-91100-4809-231500 partida, "Errenta bermatua" izenekoak.

d) 900002-91100-4809-231502 partida, "Gizarte inklusiorako laguntza bereziak" izenekoak.

e) 900002-91100-4809-231505 partida, "Bizitzeko gutxieneko errenta" izenekoak.

f) 900003-91600-4809-231600 partida, "Prestazio ekonomikoak eta akonpainamendu soziala ingurune irekian gizarte-bazterketan daudenentzat" izenekoak.

g) 900003-91600-4609-231500 partida, "Etxegabeentzako harrera zerbitzua" izenekoa.

h) 900003-91600-4609-231502 partida, "Oinarriko Gizarte Zerbitzuak" izenekoa.

i) 900003-91600-4609-231602 partida, "Enplegu sozial babestua. PE EGF 2014-2020" izenekoa.

j) 900004-91100-4819-143103 partida, "Nazioarteko larrialdiei berehalako erantzuna ematea" izenekoa.

k) 920004-93200-4809-231B00 partida, "Zerbitzuari lotutako laguntzak" izenekoa.

l) 920004-93200-4809-231B02 partida, "Zerbitzu pertsonalei erantzuteko laguntzak" izenekoa.

m) 920004-93200-4809-231B06 partida, "Desgaitasuna duten pertsonen bizimodu independentea izateko laguntzaileak kontratatzea" izenekoa.

n) 920008-93300-4809-231700 partida, "Zailtasun edo gatazka egoeran dauden adingabeen autonomiarako baliabideak" izenekoa.

ñ) 920008-93300-4809-231702 partida, "Familiarentzako prestazio ekonomikoak" izenekoa.

o) 920008-93300-4809-231704 partida, "Kanpoko ikastetxeetako haurren kuotak" izenekoa.

p) 950001-96100-4709-241109 partida, "Enplegu-zentro berezietarako laguntzak" izenekoa.

q) 950001-96100-4819-241104 partida, "Zailtasun gehiago dituzten kolektiboen gizarteratze eta laneratze programetarako laguntzak. Konferentzia sektoriala" izenekoa.

10. Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuko partida hau:

a) F20001-F2100-2279-112108 partida, "Doako laguntza juridikoa" izenekoa.

11. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko partida hau:

a) G10001-G1100-7455-322302 partida, "Kapital transferentziak NUPera: Medikuntzako eraikina" izenekoa.

12. H00000-H0000-4459-911300 partida, "Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa" izenekoa.

II. TITULUA Langileria gastuak

I. KAPITULUA Jarduneko langileen ordainsariak

6. artikulua. Nafarroako administrazio publiko-eta funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak.

1. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsarietako gehikuntza izanen dute; hain zuzen ere, Estatuko legediak sektore publikoaren zerbitzuko langileentzat 2022rako ezartzen duen gehieneko gehikuntza orokorra. Horrek ez du ezertan galaziko beharrezkoak diren ordainsari-doikuntzak egitea, beharrezkoa bada, halatan ziurtatzeko ezen lanpostu bakoitzari esleitutakoek behar bezalako zerikusia daukatela lanpostu horren edukiarekin, zailtasun teknikoa, dedikazioa, erantzukizuna, arriskugarritasuna edo nekagarritasun berezia dela eta.

2. Maila bakoitzaren hasierako soldatak urteko zenbateko hau izanen du 2022an:

| MAILA | URTEKO ZENBATEKOA |
|-------|-------------------|
| A | 27.682,20 euro |
| B | 23.288,16 euro |
| C | 19.318,46 euro |
| D | 16.824,78 euro |
| E | 14.799,26 euro |

7. artikulua. Nafarroako administrazio publiko-eta lan-kontratudunen ordainsariak.

1. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, foru lege honetan funtzionarioentzat finkatutako irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko-eta zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak, berriz, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere foru lege honetan funtzionarioentzat ezarritako irizpideei jarraikiz.

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomo-eta funtzionarioentzat finkatutako irizpideei jarraikiz, zuzendaritzako kargudunen ordainsariak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko zerbitzuetako zuzendariek eta haren erakunde autonomoetakoek (aurrekoekin parekatutakoek) 55.294,26 euroko ordainsariak izanen dituzte 2022an, hamalau hilekotan banatuta, araudi indardunaren arabera legezkiekeen gradu, antzintasun eta familia-laguntzako ordainsari pertsonalak jasotzeaz gainera, bai eta, jatorrizko izendapenagatik edo beren zerbitzu-ematearen baldintza bereziengatik, plantilla organikoan espezifikoki esleituta dituzten ordainsari osagarriak ere. Horretarako, ez da kontuan izanen lanpostuko osagarriaren jatorrizko ehunekoa, honenbesteko ordainsariaren hasierako kalkuluan sartutakoa.

Zerbitzuetako zuzendariek beren lana erabateko eskuragarritasuneko eta dedikazio osoko araubidean eginen dute.

2. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko izendapen libreko zuzendaritzako kargudunen ordainsariak ondotik zehazten diren zenbatekoak izanen dituzte 2022an, hamalau hilekotan banatuta, araudi indardunaren arabera legezkiekeen gradu, antzintasun eta familia laguntzaren ordainsari pertsonalak jasotzeaz gainera:

a) Zerbitzu ez-asistentzialetako burutzak: 55.294,26 euro.

b) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuko Zuzendaritza: 60.856,60 euro.

Baldin eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko zuzendaritzakargu horien titularren batek artikulua honetan aipatzen den zenbatekoa baino handiagoa jasotzen badu gaur egun, aldeagatik konpentsazio pertsonal bat ordainduko zaio, kargu horretan diharduen bitartean.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan diharduten izendapen libreko zuzendaritzako kargudunen ordainsariak 6. artikuluan xedatzen denaren aplikaziotik suertaturiko gehikuntza bera izanen dute, kasua bada.

9. artikulua. Nafarroako Gobernuo kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko goi-kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariak.

1. Nafarroako Gobernua osatzen duten kideek, zuzendari nagusiek, erakunde, sozietate eta fundazio publikoetako zuzendaritzako kargudunek eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko gainerako behin-behineko langileek hurrengo

apartatuetan zehazten diren ordainsariak jasoko dituzte 2022an.

2. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 35. eta 45. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuo kideek, 2022. urtean, ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratudunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

– Nafarroako Gobernuo lehendakaria: 75.939,36 euro.

– Lehendakariordea eta kontseilaria: 70.671,30 euro.

3. Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuo departamentuetako titularren kabineteetan goi-kargudunaren izaera duten langileek ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte 2022. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratudunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

– Lehendakariaren aholkularia: 60.553,36 euro.

– Kontseilarien kabineteburua: 56.360,50 euro.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, zuzendari nagusiek 60.553,36 euroko ordainsariak izanen dituzte 2022. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratudunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera.

5. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 52.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, erakunde publikoetako zuzendaritzako kargudunek ondotik zehazten diren ordainsariak izanen dituzte 2022. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratudunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

a) Erakunde autonomo bateko zuzendari kudeatzailea, salbu eta ondoko b) eta c) letretan xedatutakoa: 60.553,36 euro.

b) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak: 93.557,94 euro

c) Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuko zuzendari kudeatzailea: 57.923,70 euro.

d) Erakunde autonomo bateko zuzendariordea: 55.294,26 euro.

e) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako kargudunak:

– Oinarrizko Osasun Laguntzako kudeatzailea, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko kudeatzailea, Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria eta Eriari Osasun Laguntza emateko ataleko zuzendaria: 71.491,98 euro.

– Tuterako Osasun Barrutiko kudeatzailea, Lizarrako Osasun Barrutiko kudeatzailea eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendari asistentziala: 62.487,88 euro.

– Osasun Mentaleko kudeatzailea, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko zuzendariorde asistentzialak, Tuterako eta Lizarrako osasun barrutietako zuzendari asistentzialak, Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Laguntzaren Jarraitutasunerako zuzendariordeak, Nafarroako Larrialdietako zuzendariordea eta Hil ala Biziko Larrialdiei Arreta emateko zuzendaritza tekniko eta osasun barrutietako zuzendariordeak: 60.856,60 euro.

Zerbitzu Zentraletako zuzendariordetzak: 59.757,32 euro.

– Profesionalen zuzendaria, Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendaria, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Osasun Zainketen zuzendaria eta Oinarrizko Osasun Llaguntzako Zainketen, Etxeko Arretaren, Arreta Sozio-

sanitarioaren eta Ekintza Komunitarioen zuzendariordea: 57.052,90 euro.

– Nafarroako Laguntza Soziosanitarioko Planaren koordinatzailea eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Osasun Zainketen zuzendariordeak: 51.695,00 euro.

6. Lehendakariaren eta Nafarroako Gobernua osatzen duten kideen kabineteetako gainontzeko behin-behineko langileek ondoren zehazten diren urteko ordainsariak izanen dituzte 2022. urtean, hamalau hilekotan banatuta, langile finkoak eta kontratudunak izanez gero kasuan kasuko zerbitzu harremanari aplikatu beharreko araudiaren arabera legezkiekeen gradu eta/edo antzintasun ordainsariez gainera:

– Lehendakariaren idazkaria: 37.387,28 euro.

– Kontseilariaren idazkaria: 34.078,66 euro.

– Kabineteko laguntzailea: 29.848,56 euro.

7. Aurreko apartatuetan araututako behin-behineko langileetatik finko edo kontratudun ez direnek Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioei dagokien antzintasun saria jasoko dute, eta horretarako kontuan hartuko da behin-behineko lanpostuetan lanean emandako denbora.

8. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoan sartuta dauden Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko sozietate publikoetako zuzendaritzako kargudunek, goi-kargudunaren izaera dutenek, ordainsari hauek izanen dituzte 2022an:

Zuzendari kudeatzaileentzat, urteko oinarrizko soldata gordina, hamalau hilekotan banatuta, 60.152,97 eurokoa izanen da. Urteko ordainsari hori doitu egingen da kudeatu beharreko enpresa publikoaren konplexutasunaren arabera, taula honi jarraituz:

| SOZIETATE MOTA | KONPLEXUTASUNAREN OSAGARRIA | URTEKO OINARRIZKO SOLDATA GORDINA, EUROTAN |
|----------------|-----------------------------|--|
| D | %0 | 60.152,97 |
| C | %10 | 66.168,25 |
| B | %30 | 78.198,85 |
| A | %55 | 93.237,08 |

Sozietateen sailkapena, motaren arabera, Nafarroako Gobernuaren erabaki baten bidez ezarriko da.

9. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren fundazio publikoetako zuzendariek urteko ordainsari hauek izanen dituzte 2022an, hamalau hilekotan banatuta:

– Miguel Servet Fundazioa: 59.757,32 euro.

– Desgaitasuna duten Pertsonen Lagungarriak Helarazteko Nafarroako Fundazio Publikoa: 51.694,88 euro.

– Baluarte Fundazioa: 65.588,30 euro.

– Gizain Fundazioa: 60.553,39 euro.

– Miguel Indurain Fundazioa: 50.000,00 euro.

10. Nafarroako Gobernuak kide den inork, ez eta Nafarroako Foru Komunitateko gainerako goikargudunek ere, ez dute inolako entitate publiko edo pribaturengandik dieta pertsonalik jasoko administrazio kontseiluen nahiz kide anitzeko inolako organoren bileretara joateagatik. Betetzen duten ordezkarietarako dietak jasotzen badituzte, ordaintzaile den sozietateak edo erakundeak dirua zuzenean sartuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kasuan kasuko aurrekontu- edo sozietate-kontuan.

11. Nafarroako Gobernuak osatzen duten kideen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko goi kargudunen eta gainerako behin-behineko langileen ordainsariak 6. artikuluan xedatzen denaren aplikaziotik kasua bada suertatzen den gehikuntza bera izanen dute.

II. KAPITULUA

Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboak

10. artikulua. Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak eguneratzea.

1. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, pentsio publikoek urte horretan duten igoera bera izanen dute Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek, indarreko araudiaren arabera eguneratzeko eskubidea dutenek.

2. Pentsio publikoen arloko araudi indarduna aplikatuz, eguneraketa ez zaie aplikatuko jadanik aitortuta dauden edo etorkizunean aitortuko diren pentsioei, baldin eta, berek bakarrik nahiz haiei baturik, kasua bada, onuradun berak jasotzen dituen beste pentsio publiko batzuen zenbatekoa,

gainditu egiten badute pentsio publikoetarako ezartzen den urteko gehieneko zenbatekoa.

11. artikulua. Arauak, aplikatzekoak zaizkionak Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikitako funtzionarioen eskubide pasiboen araubideari.

1. Artikulu honetan aipatzen den funtzionarioen eskubide pasiboen araubideak beteko ditu martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak indarra hartu baino lehen indarra zuten xedapenak. Erregulazte-soldata zehazteko, kontuan hartuko dira funtzionarioek foru lege horren eta hura betetzeko emandako behin-behineko ordainsari-erregulaztearen aurreko sistemaren arabera jasotzen zituzten ordainsaririk handienak, eta gehituko zaizkie geroko ekitaldietako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan adierazitako portzentajeen. Salbuespena izanen da artikulu honetan lan istripuagatik edo gaixotasun profesionalagatik eskuratutako pentsioei buruz xedatutakoa.

2. Aurreko apartatuan aipaturiko xedapenen ildotik, zerbitzualdia erretiroaren eta pentsioen ondorioetarako neurtzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki emandako urteak bakarrik hartuko dira kontuan. Urte horien barrenean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki emandako zerbitzu-urteak, betiere kasuko administrazioak aitortuak Foru Diputazioaren 1981eko urriaren 29ko eta 2001eko otsailaren 5eko Erabakiei eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo Nafarroako toki entitateen montepioetakoren bati atxikitako funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean daudela hiltzen badira edo erretiroa hartzen badute, pentsioaren zio den egintzarainoko atzeraeraginez zenbatuko dira aipatutako funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako aldiak, baldin eta aldi horiek ez badira gainjartzen aipatu montepioei kotizatutako beste batzuekin. Horren helburu bakarra izanen da zehaztea zein diren eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta kasuko pentsioa kalkulatzeko aplikatu behar den portzentajea edo kuota, kotizazio- edo zerbitzu-urteengatikoa.

Aurreko paragrafoan jasotako funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inola ere ez dira honako hauek zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubideetan kotizatutako aldiak, baldin eta

aldi horiek, kasua bada beste batzuekin batuta, aipaturiko araubideetan pentsiorako eskubiderik sortu badute. Salbuespen izanen dira SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzen duen kotizazioa duten aldiak, zenbatu eginen baitira horiek.

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo Nafarroako toki entitateek dituzten montepioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargun-pentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek.

3. Artikulu honen 1. apartatuan xedatutakoa betez, eta Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren aplikazio eremuaren barnean dauden funtzionario publikoek 2022. urtean sortutako erretiroak eta pentsioak finkatzeko, honako hau hartuko da kontuan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten ordainsari-kontzeptuen zenbatekoak 2022. urteari dagozkionak izanen dira; hau da, 1983. urtekoei geroko aurrekontuen foru legeek finkatutako urtez urteko igoerak aplikatzearen emaitza direnak.

Salbuespen gisa, lan istripu edo gaixotasun profesional batek eragindako ezintasunagatik erretiro-pentsioen kasuan, bai eta lan istripua edo gaixotasun profesionala dela-eta hiltzearen ondoriozko alargun- edo umezurtz-pentsioenean ere, hartzeko erregulatzaila osatuko dute erretiroa edo heriotza gertatu aurreko urtean kasuko funtzionarioak bere lanpostuagatik jasotako ordainsariak.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik eratorritako ordainsari-sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, haren bigarren xedapen gehigarriko bigarren paragrafoan emandako ahalmenari jarraikiz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa honako hau izanen da: funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan izandako gehikuntzak aplikatzearen emaitza.

4. Funtzionarioek pentsio araubidearen finantzaketan parte hartuko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko araudia aplikatuz ateratzen den zenbatekoarekin, zenbateko horri ondorengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan ezarritako pentsio-igoerako porzentajeak gehiturik.

5. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publikoetako montepioen gutxieneko erretiro-pentsioa, bai martxoaren

5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sisteman jarraitzen duten funtzionarioena, bai aipatu foru legean aurreikusitakoari atxikitakoenena, 2021. urterako ezarritakoa izanen da, zeina 15.376,00 eurokoa baita, baina 2022ra eguneratua, pentsio publikoek urte horretan oro har izanen duten igoera aplikaturik.

Hirurogeita hamar urte betetzen dituzten unetik aurrera, honako hauei ere aitortuko zaie aurreko paragrafoan ezarritako gutxieneko pentsioaren baliokidea den zenbatekoa jasotzeko eskubidea: beren borondatez erretiratu eta, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurretik zegoen eskubide pasiboen sisteman jarraituta, kasuko administrazio publikoan hogeita hamar urte baino gutxiagoko zerbitzualdi aitortua frogatzeagatik eguneratze- eskubiderik gabeko pentsioa sortu dutenei.

6. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, gutxieneko alargun-pentsioaren urteko zenbateko gordina izanen da ekitaldi horretarako ezartzen den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinakoa.

7. Artikulu honen 6. apartatuan xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurrekoa zen eskubide pasiboen sistema aplikatuz emandako umezurtz-pentsioei, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako edozeinen kargura, zein bere erregelamenduan xedatutakoaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak emandako testua oinarri harturik.

Aurreko paragrafoan xedatutakotik baztertu egiten dira, beraz, aipatu 5/1991 Foru Legean ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzea zen araudiaren arabera emandako umezurtz-pentsio guztiak, onuradunaren ezintasun-egoerarengatik onartu zirenak izan ezik.

8. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pentsioei buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluko 3. apartatuan eta udal funtzionarioen eskubide pasiboari buruzko Erregelamenduaren 10. artikuluan aipatzen diren umezurtz-pentsioak, bai eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten umezurtz-pentsioak ere, aitortu eginen dira baldin eta pentsio horiek eskuratzeko bete beharreko baldintza guztiak betetzen badira pentsioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, alargun-pentsioa jasotzen duen ezkontidea edo bikotekide egonkorra hiltzen den egunean.

9. Nafarroako administrazio publikoetako montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai

norberak egindako lanarengatik jasotako diru-sarrerekin bai erretiro-pentsioarekin.

10. Baldin eta onuradunak 65 urte baino gutxiagoko adina badauka, ezintasun iraunkorraren deklarazioak, bai eta haren graduenak ere, berrikusten ahalko dira, dela egoera larriagotzeagatik dela hobetzeagatik, edo diagnostiko-akatsarengatik, betiere arau hauei jarraikiz:

a) Ezintasun gradua berrikusteko espediente ofizios edo interesdunak eskatuta irekitzen ahalko da, eta Ezintasunak Baloratzeko Nafarroako Epaimahai Medikoak horri buruzko proposamen loteslea egingen du.

b) Ezintasun iraunkorreko gradu jakin bat deklaratu duen funtzionarioa gradu altuago batean birsailkatua izanez gero, dela egoera larriagotzeagatik dela diagnostiko-akats batengatik, kasuko pentsio-esleipenak eragina izanen du berrikuspen-espediente ebatzi eta hurrengo hila-beteko lehen egunetik aurrera.

Birsailkapena diagnostiko-akats baten ondorioa denean, eskubidea izanen du jasotzeko espediente ebatzi arte jasotakoaren eta ezintasun gradu altuagoa aitortuta jaso beharko zukeenaren arteko aldeak egiten duen zenbatekoa, lau urtera arteko mugarekin.

c) Aurreko apartatueta aipatzen den berrikuspenak Foru Diputazioaren 1970eko apirilaren 17ko eta 1972ko azaroaren 24ko erabakietan ezarritako eraginak izanen ditu. Erabaki horiek indarra izaten jarraituko dute foru lege honetan ezarritakoaren aurka ez doan guztian.

III. KAPITULUA Bestelako xedapenak

12. artikulua. Lanpostuak eraldatzea.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantilla berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuak berrantolatzeagatik edukirik gabe gelditutako lanpostuak, hutsik ez daudenak, bestelako lanpostu bihurtzeko. Eginkizunen esleipen berria eta horren ondoriozko lekualdatzeak, maila beraren barnean, salbuespenez Lehendakaritzako, Berritasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak berak zuzenean egingen ditu, sindikatuen ordezkari entzun ondoren eta ukitutako langileen adostasunarekin.

2. Lanpostu horiek maila bereko bestelako lanpostu bihurtzerik ez badago, salbuespen gisa baimena eman daiteke beste maila bateko lanpostuei dagozkien eginkizunak berresleitzeko, baldin eta ukitutako langileek horiek betetzeko lanbide kuali-

fikazioa eta gainerako baldintzak betetzen badi-tuzte. Esleipen berri hori aldi baterako izanen da kasu guztietan, gehienez ere langilearen mailan atxiki edo bihurtzea posible izan arte, eta beti bermatuko da langileak jaso egingen dituela aurretik betetzen zuen lanpostuari zegozkion oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak.

13. artikulua. Udal funtzionarioen montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak ekarpena egingen du Nafarroako toki entitateetako funtzionarioen pentsioak finantzatzeko, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorrekoak direnen kasuan; ekarpen hori banatuko da Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketagatik 2021eko ekitaldian sortutako kostuen ordainketari dagokionez udal bakoitzari esleitu zaion kuotaren arabera proportzioan.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak ekarpen bana egingen die Iruñeko, Tuterako eta Tafallako udalei, beraien montepioen kudeaketak 2021eko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

3. Aurreko apartatueta ezarritako ekarpenen zenbatekoa Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren arabide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria aplikatuta ateratzen dena izanen da.

III. TITULUA Finantza-eragiketak

I. KAPITULUA Abalak eta maileguak ematea

14. artikulua. Abalak eta maileguak ematea.

1. Nafarroako Gobernuak abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko ditu, gehienez ere 20.000.000 euro egingen dutenak.

Aurreko paragrafoko mugaren barruan, Garpunen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuari baimena ematen zaio abalak eta birrabalak emateko, enpresei finantzaketa eskuratzea errazteko; horretarako, behar diren hitzarmenak izenpetzen ahalko ditu elkar bermatzeko sozietateekin eta finantza-entitateekin.

Ondare Zerbitzuak txostena emanen du horien guztien gehieneko zenbatekoei buruz.

2. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek abalak edo antzeko beste berme batzuk ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta gehienez ere 35.000.000 euro egingen dute.

3. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen abalen edo antzeko beste bermeen gehieneko arrisku bizia 36.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, berriz, gehieneko arrisku bizia 97.000.000 eurokoa izanen da.

4. Enpresa-entitate publikoek, fundazio publikoek eta sozietate publikoek maileguak ematen ahalko dituzte, Nafarroako Gobernuak baimena eman ondoren eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta gehienez ere 21.000.000 euro eginen dute.

5. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen maileguen gehieneko arrisku bizia 74.000.000 eurokoa izanen da. Enpresa-entitate publikoen, fundazio publikoen eta sozietate publikoen kasuan, gehieneko arrisku bizia 123.000.000 eurokoa izanen da.

6. Ekonomia eta Ogasun Departamentuak behar diren prozedurak ezarriko ditu, araudiak finantza zuhurtziaren printzipioari dagokionez ezartzen dituen mugak betetzen direla bermatzeko. Printzipio hori Aurrekontuaren Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan zehazturik dago.

7. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean, 75. artikuluko 3. apartatuan eta 82 ter artikuluko 2. apartatuan xedatutakoarekin bat, baimena ematen zaio Sociedad de Desarrollo de Navarra SLri 2022an mailegu eta abal eragiketa berriak egiteko, bietarik edozein, Parque de la Naturaleza de Navarra SArekin, 1.700.000 eurorenak, gehienez ere.

II. KAPITULUA

Zorpetzea

15. artikulua. Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

1. Zorpetze-eragiketak egiteko baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, muga honekin: Europako Kontuen Sistemaren arabera (SEC 2010), Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren azpisektorea osatzen duten entitateen 2022ko abenduaren 31ko saldo bizia ez izatea 2022ko urtarrilaren 1ekoa baino 199.134.000 euro handiagoa (barne-produktu gordinaren %0,9ko defizit aurrekusiaren finantzaketa).

2. Artikulu honetako lehen apartatuan ezarritako muga aldatu ahal izanen da murrizten denean kitzatzeke dagoen zorpetze garbiaren maila, dela aplikatu direlako Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 32. artikulua eta hura garatzeko neurri bereziak, aurrekontu-superabitarekin lotutakoak, dela finantzatutako erreferentzia handiagoa delako egiazki izan den defizita baino, bat etorri Ogasun Ministerioarekin eta Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeari entzun ondoren.

3. Era berean, artikulu honetako lehen apartatuan ezarritako muga gainditu ahal izanen da baldin eta hasiera batean ezarritakoa baino defizit handiagoa finantzatzen bada, eta gainteko zenbateko hori finantzatzeko beharrezkoa den zenbatekoan baino ez. Gainditu ahal izanen da, halaber, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak hitzar litzaketan bestelako zorpetze-eragiketak egiteko, Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordeari entzun ondoren.

4. Aurreko apartatuetan jasotako zorpetze-eragiketen jaulkipena eta, kasua bada, formalizazioa, eragiketa batean edo batzuetan gauzatzen ahalko dira, eta 2022ko ekitaldiaz harago ere berandutzen ahalko dira.

5. Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak behar den zorpetze-estrategia egokituko du, baimentzen den gehieneko zorpetze-bolumena ez dadin izan aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudian ezarritakoa dela-eta Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak adostutako mugatik gorakoa.

6. Nafarroako Gobernuak, hiru hilabetean behin, aurreko apartatuetan aurreikusitako zorpetze-eragiketen jaulkipen edo formalizazio guztien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

16. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen sektoreko gainerako entitateen zorpetzea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazio publikoen sektorean Europako Kontuen Sistemako irizpideen arabera sartuta dauden entitateek Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren baimena lortu beharko dute beren zorpetze-eragiketak formalizatu aurretik, eta erabat deusezak izanen dira baimen hori gabe hartutako erabakiak.

Hiru hilabetean behin, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zorpetze-eragiketa horietarako baimen guztien berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

2. Aurreko apartatuko entitateei baimenduko zaien gehieneko zorpetze bolumenak ez ditu gain-

dituko Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontuen egonkortasunari buruzko araudiaren barruan adostutako mugak.

3. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren entitateetako arduradunek Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eskatzen dien formatu eta epeetan eman beharko dute informazioa, Nafarroako Gobernuak eta Ogasun Ministerioak aurrekontu-egonkortasuna dela-eta adostutako konpromisoak betetzeko.

IV. TITULUA Toki entitateak

17. artikulua. Ohiturazko elkarleen inbertsioetarako dirulaguntzak eta onurak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako ekarpenak eta gainerako onurak jasotzen ahalko dituzte Errege Bardeako Komunitateak eta Erronkariko, Zaraitzuko eta Aezkoako batzarrek, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

V. TITULUA Aurrekontuen kudeaketa

18. artikulua. Aurreikusitako diru-sarrera handiagoen bidez finantzatzen diren aurrekontuko aldaketak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen II. tituluko I. kapituluko 2. atalean ezarritakoari jarraituz, kreditu-sorrerak dira kredituak handitzen dituzten aurrekontu-aldaketa batzuk, hasierako aurrekontuan aurreikusi gabekoak edo aurreikusitakoak baino handiagoak diren diru-sarrera jakin batzuen ondoriozkoak.

Salbuespen gisa, beste administrazio edo entitate publiko batzuek finantzatutako gastuak direnean, kredituak handitzen ahalko dira aurrekontuko gastuen egoera-orrian dagokion diru-sarrera gertatu gabe, baldin eta dokumentuz frogatzen bada funtsak jarri behar dituen entitatearen edo administrazioaren finantzaketa konpromisoa, kasu hauetan:

- a) Langileria-gastuei aurre egiteko beharrezkoak direnean.
- b) Helburutzat prestazio pertsonal edo sozialak dituzten aldizkako dirulaguntzei dagozkienean.
- c) Finantzaketa diru-itzulketa baten bidez jasotzen duten programei dagozkienean. Egiazki izandako gastuek frogatuta egon beharko dute.

d) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientziarako Planeko jarduketak finantzatzea helburu duten ekarpenak direnean.

e) Beste kasu batzuetan; behar bezala frogatuta eta Nafarroako Gobernuak baimenduta egon beharko dute, eta aurrekontuen arloko departamentu eskudunak txostena gina izan beharko du.

19. artikulua. Ordainsarien igoeraren ondoriozko aurrekontu-aldaketak.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak baimena eman dezake funtsak mugitzeko "Ordainsarien igoera" izeneko 020002-04100-1800-921402 partidaren kargura, finantzatzeko 6., 7., 8. eta 9. artikuluetan aurreikusitako ordainsari-igoerak eragindako gastua egozten zaien partidak.

20. artikulua. Aurrekontuko aldaketak, langileak hartzeagatik aldi baterako kontratatatu ezin diren lanpostuen lan publikoaren eskaintzaren ondorioz.

Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak baimena eman dezake funtsak mugitzeko "Aldi baterako kontratatatu ezin diren lanpostuen lan publikoaren eskaintza" izeneko 020002-04100-1800-921404 partidaren kargura, finantzatzeko langileak hartzearen ondoriozko gastua egozten zaien partidak.

21. artikulua. Erakunde sindikalen funtzionamendu-gastuaren konpentsazioa Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen esparruan.

020000 04000 4819 921302, 410005 41700 4819 321100 eta 540000 52000 4819 311100 partiden bidez (hirurak "Erakunde sindikalen funtzionamendu-gastuaren konpentsazioa" izenekoak), edozein motatako gastuak finantzatzen ahal dira, beharrezkoak badira erakunde sindikalen berezko jarduna egiteko.

22. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren, Arartekoaren, Nafarroako Kontseiluaren eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoaren aurrekontu-zuzkidurak.

1. Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontu-zuzkidurak ordaintzeko aginduak irmoki eta aldizka eginen dira, hurrenez hurren Mahaiak, lehendakariak edo arartekoak haiek eskatu ahala.

2. Duten independentzia organikoa eta funtzionala ezertan galarazi gabe, Nafarroako Kontseilua eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen dira.

Halaber, haren ekonomia- eta aurrekontu-jarduna Nafarroako Gobernuaren Kontu-hartzaile-tzaren kontrolpean egonen da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat eta haren erakunde autonomoentzat ezarrita dauden baldintza beretan.

Nafarroako Kontseilurako eta Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegorako transferentzia arruntak, oro har, hiruhilekoen hasieran libratuko dira, non eta behar handiagoak ez diren justifikatzen.

Kapital transferentziak eginen dira lehendakariak edo zuzendariak eskatu ahala, eskaera eragin duen gastuaren beharra justifikatuta.

23. artikulua. Interesengatiko funts-mugimenduak.

Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiak baimena eman dezake funts-mugimenduak egin daitezkeen interesak eta bestelako gastu finantzarioak ordaintzeko partiden eta gaitu beharreko suertatzen diren gutzietan artean, berdin delarik interes horiek zorrak, maileguez, diruzaintzako eragiketere edo kontueta-ko saldoek sortutakoak izatea.

24. artikulua. Funts-mugimenduak Ondare Zerbitzuko Higiezinari eta altzariei buruzko Planaren obra gastuengatik

Aurrekontuen, Ondarearen eta Politika Ekonomikoaren zuzendari nagusiak baimena eman dezake funts-mugimenduak egin daitezkeen partida hauen artean: 111002-11300-6020-923104 partida, "Higiezinari buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoak, 111002-11300-6020-923100 partida, "Instalazio berriko eraikinak eta obrak, eta ondare higiezinaren erreforma" izenekoak, eta 111002-11300-6050-923100 partida, "Higiezinari buruzko Plana. Eraikinetako eta obretako altzariak eta ekipamendua" izenekoak.

25. artikulua. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaritza.

Europar Batasuneko Gaietarako Nafarroak duen Bulego Iraunkorraren ohiko jardunerako behar diren gastuak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginekin ordaindu ahalko dira.

26. artikulua. Ikasliburuaren doakotasunerako planaren finantzaketa.

Zilegi izanen da funts-mugimenduak egitea ikasliburuak eta hezkuntzako materiala doakoak izateko plana finantzatzeko partiden artean edo haien finantzaketa egokirako gaitu beharreko par-

tiden artean. Hezkuntzako kontseilariak izanen du funts mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

Aurreko gaikuntzaren barnean dira material digitalak ezartzeko programa pilotua finantzatzea xede duten partidak.

27. artikulua. Funts-mugimenduak, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen funtzionamendugastuen eta ikastetxe publikoen ekipamendugastuen artean.

Hezkuntzako kontseilariak baimena eman dezake funts-mugimenduak egiteko "Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen funtzionamendurako finantzaketa" izeneko 410000-41600-2290-322000 partidaren eta beste hauen artean: "Ikastetxe publikoetako ekipamendua" izeneko 410001-41800-6059-325100 partida; "Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako ekipamendua" izeneko 422001-43100-6059-322E00 partida; "Ekipamendu informatikoa" izeneko 422001 43100 6060 322E03 partida; "Ikasnova programaren zerbitzu zentralak, parkea berritzea eta ekipamendua" edo gaitu behar diren partiden artean, ikastetxeen eskaeren ondorioz betiere.

28. artikulua. Eskola-garraioa eta -jantokiak.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Balia-bideen zuzendari nagusiak baimena eman dezake funts-mugimenduak egin daitezkeen eskola-garraiorako partiden eta horiek modu egokian exekutatzeko gaitu beharreko partiden artean.

Orobat, funts-mugimenduak egiteko baimena eman dezake eskola-jantokirako partiden eta horiek modu egokian exekutatzeko gaitu beharreko partiden artean.

29. artikulua. Ikastetxeak eraikitzea eta bertan obrak egitea.

Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Balia-bideen zuzendari nagusiak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egin daitezkeen ikastetxe publikoak eraikitzeko eta bertan obrak egiteko partiden eta horretarako gaitu beharreko partiden artean.

30. artikulua. UHUN-Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuen aurrekontu-zuzkidura.

UHUNen Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuen finantzaketarako transferentzia arruntak, oro har, hiruhilekoen hasieran eginen dira.

31. artikulua. Itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sostengua.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan ezarritakoaren

arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru kopurua, 2022. urterako, bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da, itundutako eta diruz lagundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoen zenbateko globala banatzeari dagokionez.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio, irakaskuntza itunduaren sektorearekin negoziatu ondoren eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aldeko txostena eman ondoren, bigarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta ratioak eta artikulua honen bosgarren apartatuan finkatutako zenbatekoa aldatzeko, bai eta aldaketaren eraginkortasun eguna ezartzeko ere.

Irakaskuntzako langileentzat bigarren xedapen gehigarrian jasotako ordainsariei buruzko aurreikuspenek 2022ko urtarrilaren 1ean hartuko dute indarra, Irakaskuntza Pribatuaren Hitzarmen kolektiboak noiz izenpetzen diren, horretan eraginik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartzen ahalko ditu enpresaburuaren elkarte guztiek espresuki horrela eskatu eta sindikatuek esaten dutena entzun ondoren, kasuan kasuko hitzarmena izenpetu arte; konturako ordainketa horiek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute eragina.

“Bestelako gastuetarako” eta, hala balitz, langile osagarrietarako moduluko osagaiak, bigarren xedapen gehigarrian jasotakoak, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

Administrazioak, ordainketa eskuordetuaren bidez, zuzenean ordainduko ditu irakasleen soldatetarako adierazita dauden zenbatekoak, gizarte-kargak barne, irakasleen eta dagokien ikastetxeko titularraren arteko lan harremana ukatu gabe.

“Bestelako gastuetarako” zenbatekoak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie, eta horiek ikasturte bakoitzaren amaieran justifikatu beharko dute aplikatu direla.

“Gastu aldakorak” osatzen dituzten zenbatekoen banaketa egingen da itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera.

2. Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak baimena eman dezake funts-mugimenduak egin daitezten partida hauen artean: 410003 proiektuan (“Irakaskuntza pribatu itundurako eta parekaturako dirulaguntzak”, kode ekonomikoa: 4811) zabalgarritzat jotako partidak eta gaitu beharrekoak.

3. Egun, Nafarroan irakasten ez direnez beraiazko lanbide heziketako titulu guztiak, Hezkuntza Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2022-2023 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriko

diren eta bigarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden erdi edo goi mailako heziketa zikloetako, oinarrizko lanbide heziketako eta lanbide lantegietako modulu ekonomikoak, eta aipaturiko xedapen gehigarri horretan sartutakoak behin-behinekoz aldatzen ahalko ditu; aldaketa horiek 2022-2023 ikasturtearen hasieran izanen dituzte ondorioak, haien ezarpena zein den ikusita.

4. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, batxilergoa, goi mailako edo erdi mailako heziketa zikloak, oinarrizko lanbide heziketa eta lanbide lantegiak ezarri dituzten ikastetxe itunduei finantzaketa emanen zaie Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2.2 artikulua aipatzen dituen hezkuntza-, psikopedagogia- eta lanbide-orientazio zerbiztu espezializatueterako. Finantzaketa hori honako proportzioan egingen da: eginkizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lanaldi oso bat, aipatu hezkuntza maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lanaldirako finantzaketa jasotzeko, maila horretan itunduta daukaten unitate kopuruaren arabera.

5. Goi mailako heziketa zikloetako itun berezia partziala izanen da; beraz, derrigorrezkoa ez den mailarako –goi mailako heziketa zikloetarako– izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa, arauturiko irakaskuntzaren kontzeptu gisa soilik, hau izanen da ikasleengandik jaso beharreko zenbatekoa: 36 euro ikasle eta hileko, hamar hilabetez, 2022ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2022ko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra arte; horretatik kanpo daude lantokiko lanbide prestakuntzakoak baizik ez den kurtso batean matrikulatuta dauden ikasleak. Horiek 32,45 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2022-2023 ikasturteko lantokiko lanbide prestakuntzak irauten duen hiru hilean.

On line egiten diren goi mailako heziketa zikloetako itun berezia partziala izanen da; beraz, goi mailako online heziketa zikloetako derrigorrezko irakaskuntzakoak ez den mailarako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitzen zaizkion funts publikoetatik lorturiko finantzaketaren osagarri gisa, ikasleengandik jaso beharreko zenbatekoa, araututako irakaskuntzaren kontzeptuan soilik, hau izanen da: 11,01 euro hileko eta ikasleko, hamar hilabetez, 2022ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta 2022ko irailaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitarte; horretatik kanpo daude lantokiko lanbide prestakuntza baizik ez den kurtso batean

matrikulatuta dauden ikasleak. Horiek 9,90 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2022-2023 ikasturteko lantokiko lanbide prestakuntzak irauten duen hiru hilean.

Ikastetxeek ikasleei diru kopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuraturiko finantzaketa erabiliko da modulu ekonomiko "bestelako gastuak" deitutako apartaturako eta, beraz, Administrazioak "bestelako gastuak" delako apartatuaren zenbatekoa osatzeko falta den kopurua baizik ez du ordainduko.

6. Zuzendaritzako eginkizunetan laguntzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, finantzaketaren beharra dago. Hori dela eta, hezkuntza maila eta modalitate guztietako eskola-unitate bakoitzeko modulu ekonomiko guztiek (foru lege honen bosgarren xedapen gehigarrian finkatutakoak), lantokiko prestakuntza soilako unitateek izan ezik, 771,51 euroko kopurua daukate urtean "bestelako gastuak" kontzeptuan (514,34 euro goi mailako online heziketa zikloetan), zuzendaritzako eta/edo pedagogiako eginkizunetako beste kargu batzuk finantzatzeko. Hori zuzendaritza-osagarriaz gain, zeinak "gastu aldakorrak" izeneko apartatua baitira.

| BAZKALTIAKOPURUA | JANTOKIKO ARDURADUNA | ADMINISTRATZAILEA | ZAINTZAILE BAKOITZEKO |
|------------------|----------------------|-------------------|-----------------------|
| 0-80 | 17,56 euro | 15,52 euro | 17,56 euro |
| 81-160 | 19,59 euro | 15,52 euro | 17,56 euro |
| 161-240 | 21,02 euro | 17,39 euro | 17,56 euro |
| +240 | 21,74 euro | 19,92 euro | 17,56 euro |

33. artikulua. Kredituak kudeatzea enplegurako lanbide prestakuntzaren ekintzak egiteko. Konferentzia sektoriala.

Lanbide Heziketaren zuzendari nagusiak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu dauden partiden eta gaitu beharreko suertatzen direnen artean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluko mugak izan gabe, gastuak behar bezala egozteko, haien izaeraren arabera ("Enplegurako lanbide prestakuntzako ekintzak. Konferentzia sektoriala" arlokoak).

34. artikulua. Irakasleei prestakuntza ikastarok emategatik ordainsaria ematea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioiko eta haren erakunde autonomoetako langileek prestakuntza jardueraren batean irakasle gisa

7. Haur Hezkuntzako eta derrigorrezko irakaskuntzetako ikastetxe itunduek artatzen badiutze hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, edo gizarte edo kultur egoera ahulean daudenak edo etxeko laguntza jasotzen dutenak, bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: ikasle horiei arreta emateko laguntza-irakasleak, logopedia zerbitzuak, eta zaindariak edo bestelako langile osagarriak.

Baliabide horiek esleitzeko, deialdi publikoa eginen da, Hezkuntza Departamentuak onetsia, behar diren txosten teknikoak baliatuta.

32. artikulua. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak diruz lagundutako eskola-jantokietan diharduten irakasleen ordainsariak.

Derrigorrezko irakaskuntza mailetan Nafarroako unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak arautzen dituen uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan eta dekretu horrek xedaturikoa garatzen duen Hezkuntza eta Kulturako kontseilariaren maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Aginduan xedatutakoaren arabera jantokiko administratzaile-, arduradun- edo zaintzaile-lanetan aritzen diren irakasleek honako ordainsari gordin hauek jasoko dituzte zeregin horretan egiazki emandako egun bakoitzeko:

parte hartzen badute, dela Hezkuntza Departamentuak urtero egiten duen Irakasle Prestakuntzako Planean jasotakoetan, dela zuzenean Lanbide Heziketaren Zuzendaritza Nagusiak, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak edo Irakasleentzako Laguntza Zentroek antolatutakoetan, ordainsaria jasotzen ahalko dute, baldin eta jarduera hori beren lanalditik kanpo egiten badute. Aipaturiko ordainsariak honakoak izanen dira:

– Prestakuntza presentziala:

a.1 Ponentzia bakoitzeko, hots, aditu batek prestakuntza jarduera batean ematen duen eskola ordu bakoitzeko, 59,25 euro ordainduko dira, gehienez.

a.2 Konferentzia bakoitzeko, halakotzat ulerturik aditu batek zientzia, teknologia edo gizarte gai interesgarri bati buruz ematen duen jendaurreko

hitzaldia, gutxienez 90 minutuko iraupenekoa, 361,76 euro ordainduko dira gehienez.

– Urrutiko prestakuntza:

b.1 Urrutiko prestakuntza jardueretan koordinatzaile telematikoko gisa parte hartzeagatik 1.049,11 euroko ordaina emanen da gehienez, guztira bost tutore koordinatzeagatik. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gutxiago baldin badira, ordainsaria proportzioan kalkulatu da. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gehiago baldin badira, koordinatzaile telematikokoak 98,35 euroko ordainsaria jasoko du tutore bakoitzeko, bosgarren tutoretik aurrera.

b.2 Urrutiko prestakuntza jardueretan tutore telematikoko gisa parte hartzeagatik 46,99 euroko ordaina emanen da, gehienez, tutoretzapeko ikasle bakoitzeko.

2. Aurreko apartatuan adierazitakoa ez zaie aplikatuko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzen dituzten unitate organikoetan destinoa duten irakasleei.

35. artikulua. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ordainsariak eta osagarriak.

1. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan beren irakastordu guztiak ematen dituzten Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoa Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoko funtzionarioek jasotzen duten bera izanen da.

2. Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleek beren ordutegiaren parte bat Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan ematen badute, zentro horretan emandako lanaldi-portzentajearen proportzioan jasoko dute Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoaren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoari esleitutakoaren artean dagoen aldea.

36. artikulua. Kilometroengatik diru-ordaina, prestakuntza jardueretara joandako irakasleentzat.

Kilometroengatik diru-ordaina jasotzeko eskubidea izanen dute Lanbide Heziketaren zuzendari nagusiaren edo Hezkuntzako zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez deitutako prestakuntza-jardueretara hezkuntza-administrazioak espresuki hautatuta joandako irakasleek, baldin eta eskubide hori espresuki aipatuta agertzen bada kasuko ebazpenean.

37. artikulua. Irakaskuntzako praktiketan dauden funtzionarioen ordainsariak.

Irakasle kidegoetan sartzeko izangaiek, praktiketako funtzionario izendatuak izan ondoren, honako ordainsari hauek jasoko dituzte izaera horrek dirauen bitartean: betetzen duten lanpostuaren mailari dagokion oinarritzko soldata eta ordainsari osagarriak, antzinasun saria, graduari dagokion ordainsaria, familia-laguntza, bai eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako administrazio-kontratudunentzat orokortasunez ezartzen den beste edozein ordainsari ere.

38. artikulua. Irakaskuntzako zenbait lanposturen ordainsari osagarrien aldaketa.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio maisu-maistren kidegoko funtzionarioen irakaskuntzako osagarri berariazkoaren esleipena aldatzeko, Bigarren Hezkuntzan aniztasunari erantzuteko eginkizunak bete ditzaketen espezialitateetan, baldin eta aurretiaz azterlan bat egiten bada ikastetxeetan dauden lanpostu horien kopuruari eta ezaugarriari buruz, eta, betiere, azterlan horretatik ez bada eratortzen guztizko gastuaren handitzerik.

39. artikulua. Lanbide-gaitasunen ebaluazio, aitorten eta egiaztatze prozeduretan esku hartzen duten irakaskuntza publikoko langileentzako ordainsariak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko irakasleek, lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozeduretan aholkularitza edo ebaluazio faseetan esku hartzeko izendatutakoek, arlo horretan eskumena duten departamentuek dei eginda, ondotik aipatzen diren ordainsariak jasotzeko eskubidea izanen dute, 66/2014 Foru Dekretuan araututako arekin bat, zeinak finkatzen baititu pertsonen lan-espereziaren edo prestakuntza bide ez-formalen bidez lortutako lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozedura Nafarroako Foru Komunitatean ezartzeko arauak eta horretaz arduratuko den antolaketa egitura:

a) Egiaztatze prozedurako aholkulariak:

– Izangai bakoitzagatik jaso beharrekoa, kasu hauetan:

Aholkaturiko 3 gaitasun unitate bitarte, 120 euro.

Aholkaturiko 4, 5 edo 6 gaitasun unitate, 150 euro.

Aholkaturiko 6 gaitasun unitate baino gehiago 180 euro.

– Lanbide arlo bereko kualifikazio gehigarria izateagatiko osagarria, izangai berarentzakoa 50 euro

b) Egiaztatze prozedurako ebaluatzaileak:

– Izangai bakoitzagatiko ebaluatzaile nagusi izatearen ordainsaria, honako kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun unitate bitarte, 130 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun unitate, 165 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun unitate baino gehiago, 200 euro.

– Izangai bakoitzagatiko bigarren mailako ebaluatzaile izatearen ordainsaria, honako kasu hauetan:

Ebaluatutako 3 gaitasun unitate bitarte, 60 euro.

Ebaluatutako 4, 5 edo 6 gaitasun unitate, 75 euro.

Ebaluatutako 6 gaitasun unitate baino gehiago, 90 euro.

– Ebaluazio batzordeko arduradun izateagatiko ordainsaria (taldeko)

Ebaluazio batzordeko burua, 200 euro.

Ebaluazio batzordeko idazkaria, 100 euro.

Ordainsari hauek konpentsazio gisa ezartzen dira, kontzeptu hauengatik: aholkularitza eta ebaluazio saioen prestaketa eta garapena; izangaiei zuzeneko arreta ematea; prozeduraren agirien kudeaketa; eta deialdia egiten duten administrazioekiko koordinazio lana.

2. Nafarroako Gobernuak baimena eman dezake, foru dekretuz, prozeduran esku hartzeagatiko ordainsaria eman dakien aholkulari eta ebaluatzaileez bestelako pertsona batzuei, baldin eta haien laguntza beharrezkotzat jotzen bada egokiro gara daitezen lanbide-gaitasuna egiaztatzeko prozedurak.

40. artikulua. Ikerketaren sustapena.

Osasun Departamentuak osasun zientzien arloan ikerketa sustatzea haren inbertsio berekiztat joko da, eta horri ez zaio aplikatuko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea, Dirulaguntzei buruzkoa, salbu eta aurrerakinei dagokienez, zeinak arau horretan ezarritakoaren arabera antolatuko baitira.

41. artikulua. Organoen transplanteen sustapena.

Ospitaleek organoen transplanteak sustatzeko jasotzen duten diru kopuru helburuduna ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetan nahiz ondasun inbentariagarrietako gastuetan erabiltzen ahalko da, jasotako diru horren helburuarekin zerikusia baldin badute betiere.

42. artikulua. Kreditu zabalgarrien kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorraren zuzendariak baimena ematen ahalko du funts-mugimenduak egiteko 54. programa multzoko aurrekontu-partiden eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan gaitu beharreko partiden artean, baldin eta lehenbizikoei zabalgarri deklaratu badira foru lege honen 5. artikuluko 6. apartatuko a), f), g), i), j), k) eta l) letretan adierazitakoaren arabera.

43. artikulua. COVID-19 kredituen kudeaketa.

Funts mugimenduak egiten ahalko dira COVID-19ari dagozkion partiden artean, eta gastuaren kudeaketa hoberako beharrezkoak direnak sortzen ahalko dira.

Partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

44. artikulua. Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.

– Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren aurrekontuko 810012-81500-4819-494108 partida, “Sindikatuentzako transferentziak, haien ordezkatzaitasunaren araberrakoak” izenekoa, haien guztien artean banatuko da bakoitzak Foru Komunitatean duen ordezkarietasunaren arabera, kontuan harturik 2018ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra bitarteko epean egindako hauteskundeetako eta boto-kontaktetako aktetan adierazitako emaitzak. Ordezkaritza-agintea indardun izan beharko dute azken data horretan, hala xedatuta baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren ekainaren 16ko 26E/2017 Foru Aginduan, zeinaren bidez ezartzen baita sindikatuak beren jarduerak arruntak gauzatzeko ematen zaien dirulaguntzaren araubidea, Nafarroan lortu duten ordezkari kopuruaren araberrakoa, bai eta urteko deialdian ere.

– 810012-81500-4819-494103 partida, “Hauteskunde sindikalen prozesuaren jarraipenerako batzordea osatzen duten sindikatuei bertan parte hartzeagatik eman beharreko konpentsazioa” izenekoa, urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuaren artean banatuko da, bertan bakoitzak duen ordezkari kopuruaren proportzioan.

– 810012-81500-4819-494114 partida, “Ekonomia sozialeko entitateak sustatu eta mantentzea. ANEL” izeneko partida erabiliko da Nafarroako Ekonomia Sozialeko Enpresen Elkarte (ANEL) izenekoaren azpiegiturako eta mantentze-lanetako gastuak ordaintzeko, ekonomia soziala bultzatu, garatu, sustatu eta indartzeko duen xedea bete ahal izan dezan.

– 810012-81500-4819-494113 partida, “Enpresaburuen elkarreentzako transferentzia, haien ordezkatzailetasunaren arabera. CEN” izenekoa, Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioaren azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko izanen da, bere funtsezko helburuak, erakundearen estatutuen 4. artikuluan jasoak, bete ahal izan ditzan.

– 810012-81500-4819-494121 partida, “Transferentzia Nafarroako Ekimen Sozialeko Enplegu Zentro Berezien Elkarteari (CEISNA)” izenekoa, erabiliko da Nafarroako Ekimen Sozialeko Enplegu Zentro Berezien azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, desgaitasuna duten pertsonen lan- eta gizarte-inklusio erabatekoaren alde lan egin dezan, entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

– 810012-81500-4819-494122 partida, “Transferentzia Nafarroako Gizarteratze Enpresen Elkarteari (EINA)” izenekoa, erabiliko da Nafarroako Gizarteratze Enpresen Elkartearen azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, lan egin dezan lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzearen eta laneratzearen alde, entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

– 810012-81500-4819-494123 partida, “Transferentzia Nafarroako Fundazioen Elkarteari” izenekoa, erabiliko da Nafarroako Fundazioen Elkartearen azpiegitura- eta funtzionamendu-gastuak ordaintzeko, fundazio-eredua susta dezan ekonomia sozialetik, eta fundazioen kudeaketa eta haien arteko elkarlana hobetu ditzan”, entitate horrek Nafarroako ekonomia soziala ordezkatzeko baitu.

– 810012-81500-4819-494111 partida, “Gizarte- eta enpresa-eragileentzako transferentzia,

haien parte-hartzearen araberrakoa” izenekoa, gizarte- eta enpresa-eragileen parte-hartze instituzionala sustatzeko izanen da, hala ezarrita baitago Garapen Ekonomikorako kontseilariaren azararen 3ko 222/2016 Foru Aginduan, zeinaren bidez arautzen baitira erakunde sindikalek eta enpresaburuen erakundeek beren parte-hartzeagatik jasoko dituzten konpentsazioak.

– 810012-81500-4819-494100 partida, “Berrikuntza Sozialerako Unitatea elkarreentzako dirulaguntza, bere funtzionamendurako” izenekoa, erabiliko da Berrikuntza Sozialerako Unitatea elkarrearen azpiegiturako eta mantentze-lanetako gastuak ordaintzeko, horrela bete ahal izan dezan bere helburua, zeina baita berrikuntza soziala sustatu eta bultzatzea eta desafio sozialei erantzuteko eta garapen ekonomiko berritzailea, soziala, jasangarria eta pertsonengana zuzendua sustatzen duten bide berritzaileak lankidetzan sortu eta garatzea, enpresajarduera eta kalitatezko enplegua sortzearekin batera.

– 950002-96200-4819-242106 partida, “Prestakuntza-premiak ikertu eta planifikatzeko jardueretan parte hartzeagatik konpentsazioa” izenekoa, banatuko da Lan arloan enplegurako lanbide heziketako sistema arautzen duen irailaren 9ko 30/2015 Legean aurreikusitakoari jarraituz.

45. artikulua. Gastu konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du urte antzeko gastu konpromisoak hartzeko baimena ematea, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimendutako mugak eta urteko zenbatekoak gaindituz, kasu hauetan:

a) Etxebizitza babestuen sustatzaileei, eskuratzaileei, erabiltzaileei eta esleipen-hartzaileei dirulaguntzak emateko, eta etxebizitzak birgaitzeko, baldin eta ez badira gainditzen aurreko ekitaldian helburu horretarako ezarritako zenbatekoak.

b) Europar Batasunak eta/edo Estatuko Administrazio Orokorrak kofinantzatzen dituzten planak, programak eta ekimenak aurrera eramateko, bai eta haietatik eratorritako betebeharreri aurre egiteko ere, bost urte baino gehiagoko plangintza eduki behar dutenean.

c) Enpresek I+G+b proiektuak finantzatzeko hitzartzen dituzten kreditu edo maileguen interesetarako hobari gisako laguntzak emateko, eta zen-

tro teknologikoei eta azpiegitura zientifiko eta teknologiko bereziei laguntzak emateko.

d) Otsailaren 26ko 196/2010 Errege Dekretuak ezarritako dirulaguntzak emateko. Dekretu horren bidez zenbait neurri ezartzen dira, 2001eko martxoaren 8ko eta 2001eko uztailaren 31ko 76/2000 eta 25/2001 enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako langileak laneratzen laguntzeko eta haientzako laguntza bereziak ezartzeko.

e) Hezkuntzaren Kalitatea hobetzeari buruzko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, hezkuntza itunak berritzeari dagokionez.

f) Toki entitateei laguntzak eman behar zaizkionean bakoitzaren udal plan orokorrak hirigintzako araudira egokitzeko.

2. Hezkuntza Departamentuak eskola-garraioa eta eskola-jantokien zerbitzua kontratatzen ahalko ditu, bai eta ikastetxe publikoak eraikitzeke espedienteak izapidetu ere, eta xede horrekin hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura gastu konpromisoak hartuko ditu, betiere konpromiso horiek aurrekontu-ekitaldia ez den urte-aldi bati badagozkio, ikasturteko beharrei erantzunez.

3. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak eta Hezkuntza Departamentuak bekak eta laguntzak ematen ahalko dituzte, xede horrekin gastu-konpromisoak hartuz hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura, betiere konpromiso horiek aurrekontu-ekitaldiaz bestelako urtealdi bati badagozkio, ikasturtearen beharrei erantzuteagatik.

46. artikulua. PFEZaren %0,7ko Funtseko kredituen kudeaketa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira PFEZaren %0,7ko Funtsari dagozkion partiden artean, baita gastuaren kudeaketa hobea izateko beharrezkoak direnak sortu ere.

Partidak zer departamenturi dagozkion, haren titularrak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

47. artikulua. Gizarte-inklusioko prestazioetarako kredituen kudeaketa.

Eskubide Sozialetako kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu "Errenta bermatua" izeneko 900002-91100-4809-231500 partidaren eta "Bizitzeko gutxieneko errenta" izeneko 900002-91100-4809-231505 partidaren eta gaitu beharrekoen artean.

48. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Zorroak mendekotasunaren, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arretarako bermatzen dituen prestazioetarako kredituen kudeaketa.

Eskubide Sozialetako kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu partida hauen eta helburu horietarako gaitu beharrekoen artean:

a) 920005-93100-2600-231B04 partida, "Adinekoentzako zentroyen kudeaketa" izeneko.

b) 920005-93100-2600-231B05 partida, "Desgaitasuna duten pertsonentzako zentroyen kudeaketa" izeneko.

c) 920005-93100-2600-231B06 partida, "Osasun mentaleko zentroyen kudeaketa" izeneko.

d) 920004-93200-4809-231B00 partida, "Zerbitzuari lotutako laguntzak" izeneko.

e) 920004-93200-4809-231B02 partida, "Zerbitzu pertsonalei arreta emateko laguntzak" izeneko.

49. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Zorroak haurrei eta nerabeei arreta emateko bermatzen dituen prestazioetarako kredituen kudeaketa.

Eskubide Sozialetako kontseilariak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu 920008 proiektuko partiden eta gaitu beharreko partiden artean, baldin eta lehenbizikoak zabalgarri deklaratu badira foru lege honen 5. artikuluko 9. apartatuan.

50. artikulua. Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programa finantzatzeko kredituen kudeaketa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Nafarroako Landa Garapenerako 2014-2020 Programa finantzatzeko aurrekontu-partiden eta hura behar bezala betetzeko gaitu beharreko partiden artean.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

51. artikulua. Kreditu-txertaketak gastu exekutugabeagatik, zeina baitagokio ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legeari, zeinak arautzen baitu Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen %0,7.

Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen %0,7 arautzen duen ekainaren 5eko

7/2009 Foru Legeari dagokion gastua, Nafarroako aurrekontu orokorretan kontsignatutakoa, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitzen joko da, eta hurrengo aurrekontu ekitaldietan txertatzen ahalko da.

52. artikulua. Hondakinen Funtseko kredituen kudeaketa.

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira Hondakinen Funtsari dagozkion partiden artean, eta gastuaren kudeaketa hobea izateko beharrezkoak direnak sortzen ahalko dira.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

53. artikulua. Hondakinen Funtsari dagozkion gastu-kreditu exekutatu gabeen txertaketak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako gastua, Hondakinei eta haien fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legeak sortutako Hondakinen Funtsari dagozkiona, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitzen joko da eta hurrengo aurrekontu-ekitaldietan txertatzen ahalko da.

54. artikulua. Europako Batzordeak baimendutako laguntzak, Nekazaritzaren eta basogintzaren arloetako estatu-laguntzei aplikatu dakizkiekeen Europar Batasunaren zuzentarauekin bat etorritik.

Europako Batzordeak laguntza-araubide batzuk baimendu ditu, bat etorritik Europar Batasunaren zuzentarauekin. Araubide horiek aplikatu dakizkiekeen nekazaritzaren eta basogintzaren arloetan eta Nafarroako Aurrekontu Orokorren kargura osotara edo partez finantzatzeko diren estatu-laguntzei. Laguntza-araubide horiek beteko dute, lehentasunez bete ere, kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen Europar Batasuneko araudia.

55. artikulua. Kreditua sortzea diru-sarrerengatik bidez.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 46. artikuluan ezarritakoa galarazi gabe, "Ondarearen kudeaketa" izeneko 111. programako lursailen eta ondasun higigarri nahiz higiezin salmentak sortutako diru-sarrerengatik kreditua sortzen ahalko dute "Lursai-

lak eta natur ondasunak" izeneko 020000-04000-2267-921400 gastu partidan.

56. artikulua. Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren kredituak kudeaketa.

Funts-mugimenduak egin ahal izanen dira Estatuko Administrazioeko organo eskudunak onetsitako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektu bakoitzeko partiden artean, lehendik dauden edota ekitaldian sortu behar izan diren artean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluko mugarik gabe.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren. Funtsen mugimendu horiek Ekonomia eta Ogasuneko Next Generation Bulegoko titularraren adostasuna izan beharko dute.

57. artikulua. REACT-EU kredituak kudeaketa

Funts-mugimenduak egin ahal izanen dira REACT-EU baliabideekin finantzaturiko jarduketarako bakoitzari dagozkion partiden artean, lehendik dauden edota ekitaldian sortu behar izan diren artean, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluko mugarik gabe.

Ukitutako partidak zer departamenturi dagozkion, bertako kontseilariak izanen du funts-mugimendu horiek baimentzeko eskumena. Departamentu bati baino gehiagori badagokie, eskumena Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariarena izanen da, ukitutako departamentuek adostasuna eman ondoren.

58. artikulua. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagozkion gastu-kreditu exekutatu gabeen txertaketak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako gastua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagozkiona, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den zatian, diruzaintzako gerakin atxikitzen joko da eta txertatzen ahalko da hurrengo aurrekontu-ekitaldietan, proiektu bakoitzaren partidetatik edozeinetan.

59. artikulua. REACT-EU dagozkion gastu-kreditu exekutatu gabek txertaketa

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan kontsignatutako gastua, REACT-EU dagozkiona, kasuan kasuko ekitaldian exekutatzeko ez den

zatian, diruzaintzako gerakin atxikitzat joko da eta txertatzen ahalko da hurrengo aurrekontu-ekitaldietan, jarduketa bakoitzaren partidetatik edozeinetan.

60. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko itxarote-zerrendak murrizteko kredituen kudeaketa

Funts-mugimenduak egiten ahalko dira itxarote-zerrendei dagozkien partiden artean, eta gastuaren kudeaketa hobe izateko beharrezkoak direnak sortzen ahalko dira.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren zuzendariak izanen du eskumena funts-mugimendu horiek egiteko.

VI. TITULUA Kontratazioa

61. artikulua. Garraioaren arloko eskudantziak.

Garraio zerbitzuak kontratatzeke eta xedetzat garraio jarduerak dituzten dirulaguntzak emateko, Lurralde Kohesiorako Departamentuko Garraioen eta Mugikortasun Jasangarriaren Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman beharko du aurretik, betiere.

62. artikulua. Erakunde autonomo edo departamentu jakin batzuetako hornidura-kontratuak.

Jendeari arreta zuzena ematen dioten departamentuek edota erakunde autonomoen menpeko zentroek, produktu freskoak erosi behar badituzte, eskaintza eska diezaiekete hornitzaileei beharrezkotzat jotzen duten maiztasunarekin zerbitzua eta laguntzaren kalitatea bermatzeko, urteko adjudikazioari heldu beharrik gabe.

63. artikulua. Osasun Departamenturako eta haren erakunde autonomoetarako ondasun eta zerbitzuak erostea, informazio sistemen eta zerbitzu eta aplikazio informatikoen arlokoak.

Osasun Departamenturako eta haren erakunde autonomoetarako ondasun eta zerbitzuen erosketak, informazio sistemen eta zerbitzu eta aplikazio informatikoen arlokoena, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuko Telekomunikazioetako eta Digitalizazio Zuzendaritza Nagusiak eginen du, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen aurrekontu-partiden kargura finantzatuta.

64. artikulua. Nafarroako Ubidearen Ereku Ureztagarriaren 1. fasea handitzeko kontratua.

Lurralde Kohesiorako Departamentuari dagozkie Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasea handitzearen interes orokorreko azpiegiturak eraiki eta ustiatzeko herri-lanen emakidarako kontratuko eskumenak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituenak Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriko interes orokorreko azpiegituren eraikuntza eta ustiapena arautzen dituen azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legeko 3.1 b) artikulua-aren arabera, salbu eta lurzatiak biltzeko prozesuen eta sektore edo eremu bakoitza ureztatzen hasteko adierazpenen eta haien aldaketen gainekoak. Emakida-kontratuko obra-proiektuen eta haien aldaketen onespren administratiboa Lurralde Kohesiorako Departamentuak emanen du.

65. artikulua. Nekazaritzako estatistika-lanetan laguntzeagatik kalte-ordainak.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak diru-ordainak ematen ahalko dizkie nekazaritzaren arloko estatistikan laguntzen duten pertsoneri, laguntza horrek sortzen dizkien gastuengatik, betiere muga hauekin (eurotan, urtero):

Laboreen urteko azalera 75

Laboreen urteko ekoizpenak 75

Abeltzaintzako beste ekoizpen batzuen ebaluazioa 250

Lurraren prezioak 1.300

Landa errentamenduen kanonak 350

Nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen asteko prezioak 1.750

Nekazariak eta abeltzainak jasotako prezioak 1.100

Nekazariak eta abeltzainak ordaindutako prezioak 600

Munta gutxiko produktuen prezioak 300

Nekazaritzako soldadak 200

Kontu makroekonomikoak 200

Meteorologia-Osoa 1.325

Meteorologia-Erdizka 1.175

Meteorologia-Termoplubiometrikoa, elurrari buruzko informazioarekin 980

Meteorologia-Termoplubiometrikoa 750

Meteorologia-Plubiometrikoa 665

Meteorologia-Erdizka, elurrari buruzko informazioarekin 1.405

66. artikulua. Laguntza-kontratua, Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (NBEUF) eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsetik (LGENF) heldu diren laguntzak kontrolatzekoa.

Europako Batzordearen 2014ko martxoaren 11ko 907/2014 (EB) Erregelamendu delegatuaren bidez osatu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1306/2013 (EB) Erregelamendua erakunde ordaintzaile eta beste organo batzuei, finantza kudeaketari, kontuen likidazioari, bermeei eta euroaren erabilerari dagokienez; hori horrela, bermatzearen bete egiten direla erregelamendu delegatu horrek Europako NBEUF eta LGENF funtsen kontuak kitatzeko prozedurari dagokionez ezartzen dituen betebeharrak, Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuak laguntza kontratuak egiten ahalko ditu, kontrolatu eta egiazta-tze aldera Europako funts horietatik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri gisa hartzen diren egitateak, edo aldezte aldera Nafarroako Foru Komunitateko Erakunde Ordaintzailearen eginkizunen betetzea. Era berean, mandatu eman diezaieke Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalei eginkizun horiek betetzeko.

Lehenbiziko xedapen gehigarria. Toki entitateen parte-hartze funtsaren tratamendua.

1. Nafarroako Parlamentuak 2022rako onetsi dituen kredituek, zeinak erabiliko baitira 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren inbertsioak finantzatzeko, hartuko dute aurreko ekitaldietan sortutako diruzaintzako gerakin atxikia. Era berean, kredituak, toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa osatzen dutenak, kapital transferentzien arloan, aurrekontu-erabilerririk gabe gelditzen badira ekitaldi-itxieran, jatorria ekitaldi itxietako ekonomietan dutenak, eta itzultzen diren kopuruak funts horri atxikitako diruzaintza-gerakintzat hartuko dira. Gerakin hori ekitaldi bakoitzeko aurrekontu-kredituarekin batera esleitzen ahalko da, aurrekontuaren exekuzio mailaren arabera eta diru-sarreraren aurreikuspenek horretarako bidea ematen badute, inbertsio planetan sartutako obren exekuziorako toki entitateei ematen zaizkien ekarpenak finantzatzeko.

2. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu toki entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtseko partiden artean, kapital transferentzien arloan, beharrezkotzat jotzen denean.

Era berean, aurrekontuko partidak sortu ahal izanen dira toki entitateek Nafarroako tributuetan

duten parte-hartzearen funtsean, kapital transferentzien arloan, beharrezkotzat jotzen denean.

3. 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planaren ekarpenen banaketari dagokionez, aldi horretarako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 4. artikulua xedatzen duenari jarraikiz, zuzkidurak Inbertsioen Programen, Toki Programazioaren eta Libreki Erabaki Beharrekoen apartatuko kontzeptu desberdinen artean banatuko dira.

4. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartuko du Toki Inbertsioen Planeko kredituen artetik plan zuzentzaileetako azterlan eta proiektuak finantzatzeko diren kredituak kudeatzeko lana, dela ente instrumental bati enkargua emanez, dela kontratu publikoei buruzko foru legeriaren araberrako kontratazio baten bidez; kudeaketa horretan sartzen dira planak garatu eta gauzatzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzu, inbertsio eta jarduketekin lotura duten edonolako gastuak. Edozein kasutan, ulertuko da Gastuen Aurrekontuan kudeaketa horretarako aitortzen diren betebeharrak Toki Inbertsioen Planaren gastu bereki direla.

5. Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiak funts-mugimenduak egiten ahalko ditu Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtseko partiden artean, transferentzia arrunten arloan, mugimendu horiek beharrezkotzat jotzen direnean.

Halaber, aurrekontu partidak sortzen ahalko dira Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren barruan, transferentzia arrunten arloan, beharrezkotzat jotzen denean.

Bigarren xedapen gehigarria. Itundutako ikastetxeen sostengurako funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak.

Hezkuntza maila nahiz modalitateetan itundutako ikastetxeen eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren urteko zenbatekoak honela daude banatuta: "Irakasleen soldadak, gizarte-prestazioen kargak barne", itundutako unitate bakoitzeko irakasle titular eta agregatuaren ratioa zehaztuta; "Gastu aldakorak" eta "Bestelako gastuak", kontzeptu bakoitzak modulu osoan duen portzentajea adierazita. Zenbateko horiek I. eranskinean ageri dira.

2021-2022 ikasturterako zenbatekoa, 2022ko abuztuaren 31ra artekoa, irakaskuntza itunduaren sektoreko irakasmiletan ezarritako errefortzu neurriak finantzatzeko modulu ekonomikoena,

kontzeptu hauetan xehakatu: “Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne”, unitate itundu bakoitzeko irakasle titular eta agregatuen ratioa zehaztuta, eta “Gastu aldakorrak” eta “Bestelako gastuak”, COVID-19a dela eta, II. eranskinean ageri dira.

“Irakasleen soldatak, gizarte-kargak barne” kontzeptuan biltzen da irakasleen ordainsarien eta haien gizarte-kargen ondoriozko kostua, irakaskuntza mailen arabera.

“Gastu aldakorrak” kontzeptuan biltzen dira, irakasleen antzinasunaren eta horrek Gizarte Segurantzaren duen eraginaren kostuaz gain, irakasle-ordezteak, zuzendaritza-osagarria eta Langileen Estatutuaren 68.e) artikuluan ezarritakoaren ondoriozko betebeharrak.

Diru kopuru horiek funts orokor batean bilduko dira, zeina irakaslez irakasle banatuko baita ikastetxe itunduetako irakasleen artean, irakasle bakoitzarengan gertatzen diren inguruabarren arabera.

Hirugarren xedapen gehigarria. Ikasliburuen doakotasunerako programako liburuen salmenta.

Ikasliburuen doakotasunerako programako liburua saltzen ahalko dituzte, bakar-bakarrik, liburu-salmentan jarduteko gaikuntza ematen dien baimena daukaten establezimenduek.

Laugarren xedapen gehigarria. Irakasleen irakastorduek zehaztea.

Irakasle-lanpostuak ikasturte bakoitzaren hasieran dauden beharrezkoen arabera betetze aldera, eta baldin kasuan kasuko espezialitatean ez badago irakastordu nahikorik, unibertsitateaz kanpoko irakasleek beste irakaste-espezialitate batzuetan irakatsiz beteko dute beren ordutegia, Hezkuntza Departamentuak ezarritako kasuetan eta baldintzetan.

Bosgarren xedapen gehigarria. Ikastetxe publiko berriak.

Hezkuntza Departamentuak zilegi izanen du ikastetxe publiko baten sorrera baino lau hilabete lehenagorainoko aurreneboraz izendatzea irakaskuntzako zuzendaritza-karguak; horiek erregelamendu organikoetan ezarrita dauden eginkizunak beteko dituzte, bai eta Eskola Kontseiluari esleitutako eskumenak ere, hura eratzen den arte.

Seigarren xedapen gehigarria. Lanbide karrerako maila aitortua aplikatzea Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei.

Osasun Departamentuan eta haren erakunde autonomoetan lanpostu finkoa lortzen duten fakul-

tatiboei Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie, espezialitate, lanbide kategoria edo titulazio-talde berari dagozkionak. Gradu horiek ordainduko dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langile fakultatiboan lanbide karrerako sistema arautzen duen apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean eta hori garatzeko araudian ezarritakoari jarraikiz.

Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batzuetatik iritsitako langileei, Osasun Departamentuko erakunde autonomoetan lanpostu bat zerbitzu eginkizunetan betetzen badute, Osasun Sistema Nazionaleko beste osasun-zerbitzu batean egiaztatutako karrera-graduak aitortzen zaizkie. Gradu horien ordainsariak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun-langileen lanbide karrerako araudian ezarritakoaren arabera ordainduko dira.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Arazoak dituzten enpresei zorrak geroratzeko baldintza bereziak.

Zuzendaritza nagusi eskudunak proposaturik, Nafarroako Gobernuak baldintza bereziak eskaintzen ahalko dizkie arazoak dituzten enpresatzat hartutakoei, bat etorri Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren irailaren 3ko 397/2012 Foru Aginduan edo agindu horren ordezkotako xedapen batean zehaztutakoarekin. Baldintza berezi horiek izanen dira kasuko enpresak Nafarroako Foru Komunitatearekin dituen zorren zatikapen eta geroratzea egiteko, enpresa bere bitartekoak erabiliz bideragarria izateko beharrezkoak diren amortizazio-epe eta -sistemari dagokienez, eta aplikatuko den interes-tasa ez da izanen legezko interes indardunaren ehuneko 50 baino gehiagokoa. Gainerako baldintzei dagokienez, zorrak zatikatzeko eta geroratzeko oro har ezarritakoak izanen dira.

Zortzigarren xedapen gehigarria. Eskubide sozialen arloko prestazio bidegabeki jasotakoak itzultzea.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak ezarriko du zatika itzul daitezkeen Babes Sozialaren eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak eta Nafarroako Beldintasunerako Institutuak ordaindutako aldizkako prestazio eta pentsio gisa bidegabeki jasotako kopuruak, aipatu diren erakunde autonomoek eta zuzendaritza nagusiak proposatuta, kasua bada; eta ez du ez interesik ez bermerik eskatuko.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Osasun zentroyen funtzionamendurako transferentziak.

547001-52300-4609-312200 proiektuko aurrekontu partidan, "Osasun zentroyen funtzionamendurako transferentziak" izenekoan, Nafarroako udalen jabetzakoak diren toki-kontsultategien eta kontsultategi osagarrien funtzionamendu gastuak finantzatzeko den horretan, dagoen zenbatekoa banatzeko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko kudeatzaileak urtero onesten dituen gehieneko zenbatekoak eta moduluak hartuko dira kontuan, eta ez zaio aplikatuko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Edozein kasutan, modulu horiek kontuan hartuko dituzte kontsultategi mota eta azalera.

Herrietako kontsultategiak hornitzeaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua arduratuko da, kasua bada.

Hamargarren xedapen gehigarria. Transferentzien Batzordea.

Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuaren bidez eratutako Transferentzien Batzordean Nafarroako Gobernuak duen ordezkartzan tokia izanen dute propio eskatu duten edo eskatuko duten talde parlamentario guztiek. Estatuko zerbitzuen transferentziari Nafarroako Gobernuaren ordezkartzak adostasuna emateko, talde parlamentarioen ordezkari gehienek emandako aldeko botoa beharko da, eta horretarako, ordezkari horietako bakoitzak bere taldea osatzen duten foru parlamentari adina boto izanen du.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Aldi baterako kontratua duten medikuen eta fakultatibo espezialisten esklusibotasun araubidea.

2022an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari atxikitako langileen araubide berezia arautzen duen 11/1992 Foru Legearen A.1 eta A.2.5 estamentuetako langileen aldi baterako kontratazioa dedikazio esklusiboaren araubidez eginen da. Hala ere, kontratatutako profesionalak aukera izanen du bestelako araubidea, dedikazio ez-esklusibokoa, hautatzeko, kontratazioaren lehen egunetik hasita.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Unibertsitateaz kanpoko irakasleentzako lan publikoaren eskaintza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lanpostuak, erretiroaren, heriotzaren, ukoaren edo lanpostu-erreserbarik ez dakarren beste edozein egoera administratiboren ondorioz hutsik gelditzen

direnak, automatikoki esleituko zaizkio plantilla organikoan jatorriko irakasle kidegoari, lanpostuen gainerako ezaugarriak zehaztu gabe.

2. Nafarroako Foru Komunitateko Administraziozko unibertsitateaz kanpoko irakasleen lan publikoaren eskaintzetan ezarriko da irakasle kidego bakoitzeko zenbat lanpostu barne hartzen dituzten guztira. Lan eskaintza horietan sartutako lanpostuen ezaugarriak, eta betiere espezialitatea eta hizkuntza, plantilla organikoa aldatzeko foru dekretu batean ezarriko dira, sartzeko hautaprobaren deialdia egin aurretik.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Nafarroako administrazio publikoek deitutako hautapen prozesuei dagozkien xedapenak.

1. Nafarroako Administrazio Publikoei ahalmena ematen zaie Administrazioan sartzeko edo bertako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuen deialdietako eskabideak eta gainerako dokumentazioa baliabide elektronikoen bidez aurkez daitezela eskatzeko.

2. Aurreko apartatuan aipatutako hautapen prozesuetan parte hartzeko eskabideak aurkezteko epeak, egunetan adierazitakoak, egun naturalak direla ulertuko da beti.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Deitutako hautaprobak atzeratzea.

Hautapen prozedura batean finkatuta badaude probaren bat egiteko eguna, ordua eta tokia baina egoera epidemiologikoa dela-eta ez bada gomendagarria hura egitea, organo deitzaileak atzeratzen ahalko du egoera epidemiologikoa horretarako bide eman arte, deialdiaren Interneteko fitxan argitaratu ondoan, nafarroa.eus helbidean.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

Orokortasunez luzatzen dira, 2022rako, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1. artikuluan aurreikusiak.

Erretiroa hartzeko gehieneko adinari dagokionez aurreko paragrafoan aipatutako 1. artikulua funtzionario guztiei aplikatuko zaie, funtzionarioa atxikita dagoen gizarte-aurreikuspeneko sistema zein den ere, barne harturik Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sistemari atxikiak, bai eta araubide horri atxikiak ere.

Hala ere, eta salbuespen gisa, Osasun Departamentuak zilegi izanen du bere zenbait langileren

zerbitzu aktiboa 2022. urtean zehar luzatzea zerbitzuaren premiengatik eta profesionalik eza-rengatik; betiere, arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira. Halatan, zilegi izanen da zerbitzu aktiboaren luzapena baimendu dakien, Gizarte Segurantzak xedaturiko legezko erretirorako adinera iritsi ondoren, Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbideari atxikitako langileen bera-riazko erregimenari buruzko 11/1992 Foru Legearen A.1 eta A.2.5. estamentuetako profesional fakultatiboei, bai eta estamentu horietakoak izanik zerbitzibururu edo laguntza-ataleko buruaren egin-kizunak betetzen ari diren profesionalei ere, baldin eta, betiere, norbere espezialitateko kontratazio-zerrenda irekita badago. Luzapena baimentze aldera inguruabar hori egiaztatzeko momentua izanen da legezko erretirorako aurreikusita dago-en data iritsi baino hilabete lehenago.

Luzapena urtebeterako eginen da, eta luzagarrria izanen da baimen-ematearen baldintzei eutsiz gero, interesdunak horretarako eskaera aurretiaz eginik eta hirurogeita hamar urteko adina mugat-izat harturik.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko langileen guardiak egun berezietan

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileek edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutukoek guardiak egun berezietan egiten dituztenean, produktibitate-modulu aldakor bat jasotzen ahalko dute, guardiari dagokionaren zenbateko bera izanen duena. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2022. urtearen lehen seihilekoan negoziatuko dute Osasun Mahai Sektorialean, bertan dauden zentral sindikalekin, aipatu modulua jasotzearen ondorioetarako zeintzuk jo behar diren egun berezitzat, bai eta jaiegun berezien izaera/modulua txanda arruntetan lan egiten duten langile guztiei hedatzea ere. 2021eko abenduan eta 2022ko urtarrilean, abenduaren 24a, 25a eta 31 eta urtarrilaren 1a, 5a eta 6a ordainduko dira, kontzeptu horren ordainsaria ekitaldi honetatik aurrera ematearren”.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Konpentsazioa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko profesionalek prestakuntza emateagatik barneko mediku egoiliarrei

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalek edo Nafarroako Osasun Publikoaren

eta Lan Osasunaren Institutukoek barneko mediku egoiliarrei prestakuntza ematea sustatzeko eta ordaintzeko xedez, eta kontuan harturik ezen, medikuntzako zenbait espezialitateetan dagoen profesionalik ezaren ondorioz, kasu batzuetan bikoiztu eginen dela ekitaldi honetan eta datozen urteetan Nafarroan prestakuntza jasoko duten BAME-en kopurua, ezohiko produktibitatearen modulu bat ezartzen da, urteko gutxieneko zenbateko gordina 1.000 eurokoa izanen duena, maiatzeko nominan ordaindu beharrekoa, barneko mediku egoiliarren prestakuntza-urtearen amaierarekin bat etorrira. Tutore batek berak bere ardurapean bi BAME baldin baditu, ordainsaria 1.200 eurokoa izanen da; eta hiru edo gehiago baldin baditu, 1.400 eurokoa. Irakaskuntza-modulua kobratzeko eskubidea izanen dute Irakaskuntza Batzordeak tutore izendatu dituen profesionalek, baldin beren ardurapean gutxienez ere barne mediku egoiliar bat izan badute. Edozein arrazoi dela-eta tutoretza-aldia maiatza baino lehenago eteten baldin bada, ezarritako kantitatearen parte proportzionala izanen da modulua ordainsari. Osasun zentro bakoitzeko Irakaskuntza Planean zehaztuko dira tutore bakoitzak bere irakaslanari eskaini beharreko orduak, bai eta irakaslan hori zer baldintzatan eginen den eta kasuan kasuko lan asistentzialetik salbuestea ere, otsailaren 8ko 183/2008 Errege Dekretuari jarraikiz. Xedapen honen lehen paragrafoan adierazitako helburu berarekin, zilegi izanen da irakaslana hedatzea, kasua bada, osasun-prestakuntza espezializatuko irakaslana egiteko gaitasun-ziurtagiria duten beste osasun-profesional batzueganaino, egoiliar-aldia eginik medikuntza, erizaintza, farmazia, biologia, psikologia, fisika eta kimikako espezialitateetan.

Produktibitatearen kontzeptu hori aplikatu ahal-ko zaie barne mediku egoiliarren prestakuntzarako kreditatuta egon eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikita dauden osasun-langileei; Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari edo Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari atxikitakoendako zenbateko bera jasoko dute.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloko zerbitzu-transferentzia.

1. Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio Transferentzien Batzordeak zehaztutako funtzionarioak edo lan-kontratudunak sar ditzan Foru Komunitateko Administrazioaren plantillan, adostu delako Nafarroako Foru Komunitatearen esku uztea Estatuko Administrazioak trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloan dituen

zenbait eginkizun eta zerbitzu.

2. Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio dagozkion aurrekontuko partidetan kredituak gaitu ditzan, funts-mugimenduak tramitatuta, finantzatu ahal izateko aipatutako langile horiek plantillan sartzeko gastuak bai eta trafikoaren eta ibilgailu motordunen zirkulazioaren arloko eginkizunak eta zerbitzuak eskualdatzearekin lotutako beste gastu batzuk ere.

3. Gerta daiteke transferentzia egin aurretik zenbait langilek, oinarrizko ordainsariak eta ordainsari osagarriak batuta, zenbateko handiagoa jasotzea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko langileen ordainsari-araudia aplikatuta legokiekeena baino. Langile horiei osagarri bat esleituko zaie, aldea konpentsatzeko. Konpentsazio hori xurgatu egingen da beren ordainsarrietan izaten den edozein gehikuntzarekin, eta horien artean sartuko dira, espresuki, bai ordainsari pertsonalei eta osagarriei dagozkienak bai oro har aplikatu daitezkeen ordainsari eguneratzeei dagozkienak.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Ikastetxe publikoak. Munta txikiko obra-kontratuak.

Salbuespenez, 2022. urtean unibertsitateaz kanpoko ikastetxeei baimena ematen zaie gauza ditzaten, dela beren ekimenez dela Hezkuntza Departamentuak proposaturik, 40.000 euro (BEZa kanpo) arteko obra kontratuak. Horrelakoetan, ikastetxeek bete beharko dute Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren otsailaren 10eko 26/2020 Ebazpenean ezarritako prozedura. Ebazpen horren bidez unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko bakoitzeko zuzendaritzaren esku utzi zen eskumena ikastetxearen funtzionamendurako beharrezkoak gertatzen diren gastu txikiatarako obra, hornidura eta zerbitzu kontratuak egiteko, eta eskumen hori erabiltzeko prozedura ezarri zen. Hezkuntza Departamentuko teknikariek gainbegiratu ahal izanen dituzte obrak, betiere.

Hogeigarren xedapen gehigarria. Lan eskaintza publikoak onesten dituzten foru dekretuetan jasotako lanpostuen betekizunak aldatzea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren erakunde autonomoetako lan eskaintza publikoak onesten dituzten foru dekretuetan jasotako lanpostuen betekizunak aldatu ahalko dira kasuko foru dekretua onetsi ondoren, eta administrazioan sartzeko kasuko deialdiaren datan plantilla organikoan agertzen direnei jarraituz eskainiko dira lanpostuak.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Iruñeko Udalari lagatzea Alde Zaharreko Caldereria kaleko osasun etxearen ondoko ezkaratza, irisgarritasuna hobetzeko.

Nafarroako Gobernuak, ahalik eta denbora laburrenean, Iruñeko Udalari lagako dio Alde Zaharreko osasun etxearen ondoko eremu hori, hura kale bihurtu eta irisgarritasuna errazteko osasun etxearen erabiltzaileei

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Jardu-neko zerbitzuan jarraitzeko salbuespena.

Salbuespen gisa, baimena ematen da jarduneko zerbitzuan jarraitzeko 70 urteko adinetik aurrera, Lurralde Kohesiorako Departamentuari Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren barnean atxikitako langileentzat, 2022. urtean zehar, urtebeteko eperako, arrazoiak izanik zerbitzuen beharrezkoak, profesionalen gabezia edo berehala egin beharrezko proiektu eta/edo obren konplexutasun teknikoa, guztiz garrantzitsua Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde garapenerako. Edonola ere arrazoi horiek behar bezala justifikatu beharko dira.

Lehen xedapen iragankorra. Indarreko kontratazio zerrendak mantentzea.

Egoera epidemiologikoa edo haren prebentzioa dela-eta gomendagarria ez bada hautaprobarek egitea kontratazio zerrenda berriak eratzeko Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lanpostuak aldi baterako betetzeko, langileriaren arloko eskumenak dituen organoak erabaki dezake 2022an indarra galduko duten zerrendak luzatzea, kasuan kasuko lanpostuko kontratazio zerrenda berriak onetsi arte.

Bigarren xedapen iragankorra. 2022. urterako kreditu eragiketen salbuespeneko hitzartze-araubidea.

Salbuespenez, 2022an, baldin inguruabar ekonomikoen ondorioz beharrezkoa bada, urtebetetik gorako kreditu-eragiketak hitzartu ahal izanen dira, eta kasu horretan, ez dira aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 62. artikuluko bigarren eta hirugarren apartatuetan aurreikusitako murrizketak. Salbuespen horren babesean hitzartzen diren eragiketak Estatuak baimendu beharko ditu, berak erabakiko baitu xedapen honetan aurreikusitako inguruabarrak badiren ala ez. Baimen hori mailaka egin ahal izanen da, tarteen arabera.

Hirugarren xedapen iragankorra. Kreditu-eragiketak ituntzeko 2022. urterako salbuespene-ko araubidea, denbora-desfaseak estaltzeko Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntza (REACT-EB) azkar hedatu eta gauzatzeko behar diren baliabideetan.

2022an, salbuespenez, kreditu-eragiketak itundu ahal izanen dira, denbora-desfaseak estaltzeko Europako Lurraldeak eta Kohesioa Berreskuratzeko Laguntza (REACT-EB) azkar hedatu eta gauzatzeko behar diren baliabideetan, eta, kasu horretan, ez dira aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 62. artikuluko bigaren eta hirugarren apartatuetan aurreikusitako murrizketak. Salbuespen horren babesean hitzartzen diren eragiketak Estatuak baimendu beharko ditu, berak erabakiko baitu xedapen honetan aurreikusitako inguruabarrak badiren ala ez. Baimen hori mailaka egin ahal izanen da, tarteen arabera.

Azken xedapenetako lehena. Apirilaren 4ko 18/2019 Foru Legea aldatzea, Nafarroan kirol-lanbidean hasteari eta jarduteari buruzkoa.

Laugarren xedapen iragankorraren 1. apartatua aldatzen da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“1. Foru lege hau indarrean sartzean, foru lege honetan jasotako lehen laguntzako kualifikazio eskaera betetzen ez duten kirol arloko profesionalak 2022ko irailaren 1a arte jarraitzen ahalko dute beren lanbide-jardueran”.

Azken xedapenetako bigarrena. Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Foru Legearen aldaketa.

50. artikuluko 3. apartatua aldatzen da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“3. Araubide horrek berekin ekarriko du lehen-tasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea ezartzea Nafarroako Gobernuaren alde, mortis causa dohaintzetan izan ezik egindako beste jabetza-transmisio guztietan, Nekazaritzako Azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legearen esparruan eraldatutako finketan. Jabetza-transmisio horiek jakinarazi behar dira, nahitaez, jabetzaren erregistroan inskribatu aurretik. Nafarroako Gobernuak 3 hilabeteko epea izanen du, jakinarazpena jasozten duenetik zenbatzen hasita, lehen-tasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubide hori erabiltzeko. Epe hori igarotakoan, joko da Nafarroako Gobernuak uko egin diola eskubide horri, eta jabetzaren erregistroan inskribatu ahal izanen da”.

Azken xedapenetako hirugarrena. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legea aldatzea.

Bat. i) letra berri bat gehitzen zaio 2. artikuluari, honako testu hau izanen duena:

“i) Nafarroako Unibertsitate Publikoa, haren berriazko araudiak eraenduko duena eta, modu osagarrian, foru lege honen xedapenek”.

Bi. g) letra gehitzen zaio 27. artikuluari, honako testu hau izanen duena:

“g) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontua eta finantzaketa.

Hiru. 40. artikulua aldatzen da, eta testu hau izanen du aurrerantzean:

“1. Gastua modu irmoan zer ekitalditan konprometitzen den, ekitaldi horretatik harago doazen gastu konpromisoak hartzen ahalko dira, baldin eta ez badituzte gaintitzen hurrengo zenbakian ezarritako mugak eta urteak”.

2. Gastuak ezin izanen dira egotzi bost ekitaldi baino gehiagotan, salbu eta lege-mailako arau batek baimendutako kasuetan. Baimendu ondoko ekitaldian egotzen den gastua ezin da handiago izan kapitulu bakoitzaren hasierako kredituen bolumenari ehuneko hauek aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa baino: hurren-hurreneko ekitaldian, ehuneko 70; bigarren ekitaldian, ehuneko 60; eta hurrengo ekitaldian, ehuneko 50.

3. Bereziki justifikatuta dauden kasuetan ere, Nafarroako Gobernuak erabaki ahal izanen du ehuneko horiek aldatzea. Horrelakoetan, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, dagokion departamentuak eskatuta, proposamena igorriko dio Nafarroako Gobernuari. Gainera, horren aurretik, Aurrekontuaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko da, aldaketa hori epe ertainera begira dagoen aurrekontu-esparruarekin koherentea dela frogatzen duena.

4. Aldez aurreko tramitazioen kasuan, hala kontratazio-espeditenteen kasuan nola gastu-konpromisoak formalizatzeko bidea ematen duen araudiaren menpe dauden gastu-espeditenteen kasuan, bete beharko dira artikuluko honen 2. apartatuan adierazitako mugak eta urte kopuruak.

5. Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 17.2.a) artikuluan adierazitako dirulaguntzen kasuan, ezin izanen da gero-ko ekitaldien kargurako gastu-konpromisorik hartu.

6. Etorkizuneko ekitaldiei egotz dakiekeen gastua 600.000 euro baino gehiagokoa duen urte anitzeko gastu konpromisoa hartzeko, Nafarroako

Gobernuak baimena eman beharko du aldez aurretik, salbu eta lege-mailako arau batez baimendutako kasuetan.

7. Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak jarraibideak emanen ditu urte anitzeko espedienteak tramitatzeari eta horien jarraipena egiteari buruz”.

Lau. 49. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“2. Txertatutako kredituak aplikatu ahal izanen dira, bakar-bakarrik, horiek txertatzea baimentzen den aurrekontu ekitaldiaren baitan, non eta foru lege bidez ez den besterik ezartzen, edo non eta ez dagokion Europar Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik datozen funts finalisten bidez finantzatutako gastuari”.

Bost. 49. artikuluari 4 bis apartatua gehitzen zaio, honako testu hau duena:

“4 bis. Europar Batasunetik edo beste administrazio publiko batzuetatik datozen funts finalisten bidez finantzatutako gastuaren kasuan, kredituak txertatzen ahalko dira finantzaketa atxikia duen gastu proiektu beraren edozein partidatan, baldin eta kofinantzaketaren araudia betetzen bada”.

Azken xedapenetako laugarrena. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legea aldatzea.

133. artikuluko 5. apartatua aldatzen da, eta testua hauxe izanen da aurrerantzean:

“5. Artikulu honetan ezarritako kontsulta, entzunaldi eta jendaurrean jartzeko izapideak ez dira egin beharko honako hauek direnean: aurrekontu edo antolaketa arauak; zerga arloko aldaketei buruzko foru legeen aurreproiektuak, izapidetzen direnak Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko foru legeen aldi berean, eta interes publikoko arrazoi larriek hori justifikatzen dutenean”.

Azken xedapenetako bosgarrena. Zahar-eteetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legearen aldaketa.

2. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“2. artikulua. Ordaintzera derrigortutako pertsonen ahalmen ekonomikoa ezartzea.

Foru lege honen ondorioetarako, balorazio-elementu hauen arabera kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: Errenta, ondarea eta familia unitatearen pertsonen kopurua.

Errentatzat jotzen dira familia unitatearen diru-sarrerara guztiak, ondoko hauetatik ateratzen direnak:

Lan etekinak, barne izanik aurreikuspen sozialeko prestazioak eta pentsioak, zein den ere haien araubidea.

Ondasun higigarrien nahiz higiezinaren kapitalaren etekinak.

Enpresa nahiz lanbide jardueren etekinak.

Ondareztat hartzen da erabiltzailearen kapital higigarri eta higiezin osoa, hala kostu bidezkoa nola dohainekoa, baloratu izan dena mendekotasun egoera aitortzeko eskaera aurkeztu aurreko bost urteetan, gezurrezko pobretze guztiak baztertuz. Ondarearen balioespina egiteko, ondarearen gaineko zergarako ezarritako arauak hartuko dira kontuan.

Kapital higigarriak honako hauek biltzen ditu: kontu korronteko eta eperako gordailuak, inbertsio funtsak eta pentsio funtsak, higigarrien baloreak, bizi-aseguruak eta aldi baterako edo biziarteko errentak, arte-lanak, antzinako gauzak, ibilgailuak, bitxiak eta bestelako gauzaki baliotsuak.

Kapital higiezinatzat hartuko dira landa nahiz hiri ondasun higiezinak.

Familia-unitatetzat hartzen da pertsona fisiko-en errentaren gaineko zerga arautzen duen araudian definitutako hura.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak ezkutatzuz gero edo datu faltsuak emanez gero zerbitzua aldi baterako edo betiko eten ahal izanen da.

Era berean, adineko pertsonen arloan eskumena duen erakundeak atzematen badu hirugarren adinekoentzako egoitza zerbitzuen edo dirulaguntza baten eskatzailearen gezurrezko pobretzea gertatu dela, artikulu honetan xedatutakoaren ondorioetarako iruzurra egin nahian, iruzur hori noiz egin zen gorabehera, zerbitzua edo dirulaguntza ukatu ahal izanen da edo aldi baterako zein behin betiko kendu”.

Azken xedapenetako seigarrena. Apirilaren 14ko 4/2021 Foru Lege-dekretua aldatzea. Foru lege-dekretu horren bidez premiazko neurriak onetsi ziren Suspertzerako Europako Bitartekoetatik heltzen diren funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.

13. artikulua aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“13. artikulua. Energia iturri berriztagarrietatik energia elektrikoa sortzeko instalazioen administrazio baimena.

Jarraian adieraziko diren instalazioek, zeinek energia iturri berriztagarrietatik energia elektrikoa sortzen baitute, ez dute aurretiazko administrazio baimenaren beharrik izanen, ez eta eraikitzekeko administrazio baimenaren beharrik ere, non eta ez dauden ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren menpe. Bai aurkeztu beharko dituzte, ordea, aplikatu beharreko araubide teknikoaren arabera beharrezkoak diren agiriak. Instalazio horiek dira:

a) Soberakinik ez duten autokontsumo modalitateko instalazioak.

b) Soberakina duten autokontsumo modalitateko instalazioak, baldin eta konektaturik badaude 1 kV baino tentsio gutxiago duten sareetara.

c) Instalazio isolatuak”.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Aldatzea 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duena.

Bigarren paragrafoa gehitzen zaio 59. artikuluen 3. apartatuan. Testu hau izanen du:

“Salbuesenez, genero indarkeriaren biktima diren emakumezko funtzionarioen ordainsariak ez dira aldatuko lanaldia murrizten dutenean heren batean edo gutxiagoan”.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Urriaren 23ko 4/2019 Foru Lege Dekretua aldatzea. Foru lege dekretu horren bidez presako neurri batzuk onetsi ziren Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen arloan.

6. artikulua aldatzen da, eta hauxe da testu berria:

“1. Oro har, ikasturtero urtarrilaren 16a baino lehen izenpetzen diren aldi baterako administrazio-kontratuek, egiten direnek irakaspostuak betetzeko Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetan, ikasturte bereko abuztuaren 31ra arteko iraupena izanen dute, gehienez ere.

2. Ikasturtero urtarrilaren 16tik aurrera izenpetzen diren aldi baterako administrazio-kontratuek, egiten direnek irakaspostuak betetzeko Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetan, ikasturte bereko ekainaren 30era arteko iraupena izanen dute, gehienez ere.

3. Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxeetan aldi baterako administrazio-kontratuekin aritzen diren irakasleek, ikasturte batean irailaren 1etik ekainaren 30era artean 165 egun

naturaleko edo gehiagoko zerbitzualdia eman badute, eskubidea sortuko dute beste kontratu bat edukitzeko, ikasturte horretako uztailearen 1etik abuztuaren 31ra (biak barne). Kontratu berriak dagokion ikasturtean izenpetu duen kontraturik luzeenak dituen ezaugarriak edukiko ditu, ikastetxeari, irakasle kidegoari, espezialitateari, hizkuntzari, profilarri eta lanaldiari dagokienez. Baldin iraupen luzeeneko kontratua indarrean den bitartean langileak lanaldia murrizteko modalitateetako bati helden badiu, egiazki gauzatutako lanaldiaren arabera izanen da formalizatzen den kontratua.

4. Aurreko paragrafoan aipatutako kontratu berria formalizatu ahal izateko, bete beharko dira bai irakasleen kidegoko aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendan egoteko ezarri diren baldintzak, bai espezialitatea, hizkuntza eta dagokion ikasturtean izenpetutako kontratuetatik iraupen luzeenekoaren profila, eta lanerako prest egoeran azaldu beharko da zerrendan.

5. Izenpetzen diren kontratu berriak aintzat hartuko dira ikasturte horretan bertan hartu ez diren oporren kontua erregularizatzeko.

6. Maiatzaren 14ko 39/2014 Foru Dekretuaren babesean (haren bidez Nafarroako administrazio publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezarri ziren) administrazio araubidean eta aldi baterako kontratatutako irakasleek, ikasturte batean irailaren 1etik ekainaren 30era 165 egun edo egun gehiagoko aldi batez zerbitzuak eman badituzte, eskubidea sortuko dute beste kontratu bat izateko. Kontratu honen iraupena uztailean eta abuztuaren bi hilabeteko kontratazioa osatzeko falta den denbora izanen da.

7. Kontratua luzatzeko eskubidea sortu dutenek uko egiten ahalko diote luzapen horri. Ukoa egiteko eskaera idatziz egin behar da, dagokion ikasturteko ekainaren 15a baino lehen.

Uko egiten duen pertsona ez da baztertuko aldi baterako kontratazioetarako izangaien zerrendetatik, eta likidatuko zaizkio lan egindako egunengatik dagozkion oporrak.

8. Artikulu honetan jasotako araubidea aplikatuko zaie 2021-2022 ikasturtean administrazio-kontratua izan duten irakasle guztiei”.

Azken xedapenetako bederatzigarrena. Aldaketa uztailearen 27ko 100/2005 Foru Dekretuan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa onesten baitu.

Bat. 6. artikuluko 3. apartatua aldatzen da. Izan ere, apartatu horretan Lehendakaritzako

Zuzendaritza Nagusiari erreferentzia egiten zaionean Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuari egin behar zaio erreferentzia foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera.

Bj. 9. apartatua gehitzen da, honako testu hau duena:

“Funtzionarioei gordetako zuzendaritzako eta burutzako lanpostuetako lanpostu-osagarriaren ehunekoak kontuan hartuko du urriaren 18ko 318/2004 Foru Dekretuaren ondoriozko aplikazioa. Foru dekretu horren bidez ordainsari osagarriak esleitu zitzaizkien Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko plantilla organikoko zenbait lanposturi, bete zedin Administrazioak eta sindikatuek Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langileen lan baldintzei buruz 2004. eta 2005. urteetarako sinatutako akordioa”.

Azken xedapenetako hamargarrena. Ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea aldatzea, LGTBI+ Pertsonen Berdintasun Sozialari buruzkoa.

7. artikuluari apartatu bat gehitzen zaio, honako testu hau duena:

“5. Publizitate instituzionalaren arloko kontratuak edo esparru-akordioak, Nafarroako Administrazio Publikoek egindakoak ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak ematen dituzten edo beste publizitate euskarri batzuk zuzenean edo zeharka –publizitate agentzien bitartez– kudeatzen dituzten pertsona fisikoekin edo juridikoekin, suntsitu eginen dira baldin eta pertsona horiek ez badituzte txertatzen, entitate kontratatuak hala eskatu ondotik, aurreko apartatueta banan-banan aipatutako publizitate instituzionalaren arloko kanpainak.

Une horretatik aurrera, eskatutakoa bete ez duten pertsona fisiko edo juridiko horiek, hau da, ikus-entzunezko komunikazio zerbitzuak eman edo beste publizitate euskarri batzuk zuzenean edo zeharka –publizitate agentzien bitartez– kudeatzen dituztenak, baztertuko dira kontratatu daitezkeen komunikabideen eta publizitate-euskarrien zerrendatik, zeina jasota dagoen indarreko esparru-akordioan edo kontratuan”.

Azken xedapenetako hamaigarrena. Aldatzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea.

Bat. 4. artikuluko 4. apartatua aldatzen da, eta testua hau izanen da aurrerantzean:

“4. Etxebizitza-sustatzailatzat hartzen da edozein pertsona fisiko zein juridiko, publiko zein pri-

batu, banaka zein taldean, bere baliabideen edo besterenen bitartez, eraikuntza-obra erabaki, sustatu, programatu eta finantzatzen dituen, beretzat nahiz gero besterentzeko, edo besteri entregatu nahiz lagatzeko, edozein tituluren arabera.

Sustatzaile publikotzat hartuko dira administrazio publikoak, haien sozietate instrumentalak eta sozietate publikoak, ulertuta azken horiek direla sozietateak, non administrazio publiko baten edo haren erakunde publikoen partaidetza, zuzeneko nahiz zeharkakoa, kapital sozialaren gehiengo osoa baita.

Sustatzailearen eginkizunak ez dira eraikitzailearenak bezalakoak, izan ere, eraikitzaileak bere gain hartzen du lan guztiak edo zati bat proiektuaren arabera burutzea, bere langile eta materialak edo besteren batenak erabiliz. Hala ere, sustatzailearen eta eraikitzailearen eginkizunak pertsona fisiko edo juridiko berak egin ditzake”.

Bj. 43. artikuluko 2. apartatua aldatzen da, eta testua hau izanen da aurrerantzean:

“2. Errentamendu araubidean eraiki eta kalifikatutako babes ofizialeko etxebizitzaren araubidearen gutxieneko iraupena hamabost urtekoa izanen da, behin betiko kalifikazioaren egunetik hasita, sustatzaile publiko batek sustatu eta behin betiko kalifikazioa 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera jaso duten babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan izan ezik, horietan babes araubidearen iraupen 75 urtekoa izanen baita”.

Azken xedapenetako hamabigarrena. Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Bat. 34. artikuluan 8. idatz-zatia aldatu eta 9. idatz-zatia gehitu da, testu honekin:

“8. Nafarroako Foru Komunitatean, Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua derrigorrez osatu beharko da Eraikinaren Ebaluazio Txostena izateko betebeharra duten etxebizitza-tipologia kolektiboko eraikin guztietan. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua Nafarroako Eraikinaren Ebaluatze Orokorrean inskribatu beharko da. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua zaindu, eguneratu, eskualdatu eta kontsultatzeko baldintzak Eraikinaren Liburua arautzen duen 322/2000 Foru Dekretuaren 2. eta 3. artikuluetan ezarritakoak izanen dira.

9. Edozein etxebizitzaren bizigarritasun-zedula emateko edo berritzeko, eraikinaren ebaluazio-txostena eduki beharko da, gai edo gai akats arinekin emaitza duena, hura eskatzekoa denean eta

eraikina familia unitate, pertsona fisiko edo juridiko bakar baten jabetzakoa denean. Era berean, bizigarritasun-zedula ez da eman edo berrituko eraikinak, titulartasuna kontuan hartu gabe, Eraikinen Ebaluazio Txostena egina badu eta haren emaitza “ez gai” edo “ez gai behin-behinekoz” denean”.

Bj. 78. artikuluko 2. apartatuko e) letra aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“e) Etxebizitzaren eraikinak ba ote duen Lehendik dagoen Eraikinaren Libururik eta/edo eraikinen ebaluazio txostenik”.

Hiru. 79. artikuluko 2. apartatuko d) letra aldatu da, eta hauxe da testu berria:

“d) Etxebizitzaren eraikinak Lehendik dagoen Eraikinaren Libururik eta/edo Eraikinen Ebaluazio Txostenik ba ote duen, eta hala bada, zein den haren emaitza”.

Lau. Hamalagarren xedapen iragankorra gehituko da. Testu hau izanen du:

“Hamalagarren xedapen iragankorra. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua.

1. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua izatea derrigorrezkoa izanen da 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera.

2. Aurrekoa gorabehera, egun horretara arte eginiko Eraikinen Ebaluazio Txostenak baliodunak izanen dira eta haiek indarra galdu arte ez da beharrezkoa izanen Lehendik dagoen Eraikinaren Liburua osatzea.

3. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera, ulertuko da Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan jasotako Eraikinen Ebaluazio Txostenari buruzko aipamenak Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuari buruzkoak direla.

4. Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren edukia erregelamendu bidez arautuko da. Erregelamendu hori onetsi bitartean, Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren gutxieneko edukia izanen da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programari buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren I. eranskinean ezarritakoa, ondoko berezitasunekin:

– Eraikinen Ebaluazio Txostena arautzen duen azaroaren 12ko 108/2014 Foru Dekretuak ezarritakoari jarraikiz Nafarroako Eraikinak Ebaluatzeko Erregistro Orokorrean inskribaturiko Eraikinen Ebaluazio Txostena Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuaren zati izanen da.

– Eraikinaren prestazioak hobetzeko aukeraren azterketan beharrezkoa izanen da eraikina digitalizatzeko eta monitorizatzeko aukerei buruzko txosten diagnostiko bat jasotzea, bai eta eraikinaren jasangarritasunari eta bizitza-zikloari buruzkoa ere.

– Eraikina zaharberritzeko jarduketa planean derrigorrez jaso beharko dira eraikinak C motako kalifikazio energetikoa lortzea ahalbidetuko duten neurriak, betiere eraikinak kalifikazio energetiko apalagoa duenean.

– Lehendik dagoen Eraikinaren Liburuan jaso beharko da jabekideen erkidegoak Eraikinaren Liburua prestatu duten teknikariarekin edo teknikariekin eginiko bileraren akta. Bilera hori Eraikinaren Liburua jaso eta hiru hilabeteko epean egin beharko da, eta bertan azalduko dira Liburuan jasotako ondorio eta proposamen nabarmenenak”.

Azken xedapenetako hamahirugarrena. Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari hamabosgarren xedapen iragankorra eransten zaio. Testu hau izanen du:

“Hamabosgarren xedapen iragankorra. Etxebizitza eta eraikinen zaharberritzearen arloko jarduketa babesgarriei buruzko neurriak.

1. Babesgarri gisa kalifikatuak izateko, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan jasotako etxebizitza eta eraikinen zaharberritzearen arloko jarduketak soilik egin ahal izanen dira eraiki zirenetik 20 urte baino gehiago dituzten higiezinetan, salbu etxebizitza edo eraikinen ezusteko egokitzapenak egin behar direnean etxebizitzaren erabiltzaile edo haien familia unitateko kide diren eta ezgaitasunen bat duten pertsonak erabil ahal izateko edota obrak beharrezkoak direnean instalazioak nahitaez aplikatzeko den araudi teknikora egokitzeko. Antzinasun hori aldatu ahalko da etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuko titularraren foru aginduaren bidez.

2. Berariazko erregelamendu bat xedatzen ez den bitartean, prozedura erraztu bat ezarriko da 10.000 eurotik beherako aurrekontu babesgarria duten zaharberritze-jarduketa babesgarrientzat. Horren bidez, lanak hasi ahalko dira behin-behineko kalifikaziorako eskaera aurkeztu ondoren eta hura lortu baino lehenago. Lanak amaitzeko gehienezko epea behin-behineko kalifikaziorako eskaera aurkeztu eta 9 hilabetekoa izanen da, eta behin betiko kalifikazioa eskatzeko gehienezko

epea, berriz, 12 hilabetekoa izanen da, egun bere-tik kontatzen hasita, eta ez da luzapenik onartuko. Espedientearen behin-behineko kalifikazioa eta behin betikoa aldi berean onestea ahalbidetuko da.

3. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programari buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 15.2.b) eta 34.3.b) artikuluetan ezarritakoaren ondorioetarako, ulertuko da zaugarritasun ekonomikoko egoeran dauden pertsonak direla babes ofizialeko etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak jasotzeko indarrean dauden baldintzak betetzen dituztenak, baldintza horiek betetzetik salbuetsita etxebizitzaren edota haren zati alikuotaren titulartasunari buruzkoa, zeina soilik aplikatuko zaio zaharberritutako etxebizitzaren titulartasunari.

Pertsona horiek dirulaguntza osagarriko eskubidea izanen dute. Dirulaguntza hori banakako espedientearen gauzatuko da, honako zenbatekoekin:

– Familiaren diru-sarrera haztatuak ERREGE-ROSNA adierazlearen halako 0,75 baino txikiagoak: lanen kostutik etxebizitza bakoitzari egotz dakioken zenbatekoaren eta dirulaguntzagatik lorturiko zenbatekoaren arteko aldearen % 100, etxebizitza bakoitzeko 6.000 euro gehie- nez ere.

– Familiaren diru-sarrera haztatuak ERREGE-ROSNA adierazlearen halako 0,75 eta 1 bitarte: lanen kostutik etxebizitza bakoitzari egotz dakio-

keen zenbatekoaren eta dirulaguntzagatik lorturiko zenbatekoaren arteko aldearen % 100, etxebizitza bakoitzeko 3.000 euro gehie nez ere.

Etxebizitzaren arloko departamentu eskuduna- ren titularraren foru agindu bidez aldatu ahalko dira aipatutako gehie nezko zenbatekoak eta eska- tutako familiaren diru-sarrera haztatuen tartearak.

4. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programari buruzko urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuan aipatzen diren Birgai- tze Programatuko Etxebizitza Inguruneak soilik onetsi ahalko dira etxebizitzaren arloko departa- mentu eskudunaren titularrak 2018ko ekainaren 14tik aurrera emandako foru agindu bidez one- tsitako esku-hartze orokorreko proiektuetan jaso- tako eremu edo guneeetan –osoak edo zatiak, etengabeak edo etenak–. Horretaz gain, progra- ma-oroitidazki bat aurkeztu beharko da, urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretuaren 12.2.b) artiku- luko 1., 2., 3., 4. eta 5. puntuetan ezarritako baldintzekin.

5. Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren 56. artikuluan aipatzen diren Esku- hartze Orokorreko Proiektuak Esku-hartze Publi- koko Proiektuak izanen dira hemendik aurrera”.

Azken xedapenetako hamalagarrena. Inda- rra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofiziale- an argitaratu eta biharamunean hartuko du inda- rra.

I. ERANSKINA

Hezkuntza mailetako moduluak eta ratioak 2022

| HEZKUNTZA MAILA | IRAKASLE RATIOA | | LANGILEEN SOLDATAK | MODULUA % | GASTU ALDAKORRAK | MODULUA % | BESTE GASTU BATZUK | MODULUA % | MODULUA, GUZTIRA |
|---------------------------------------|-----------------|-----------|--------------------|-----------|------------------|-----------|--------------------|-----------|------------------|
| | TITULARRA | AGREGATUA | | | | | | | |
| HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOA | 1,217 | 0 | 48.008,74 | 73,27 | 6.787,47 | 10,36 | 10.730,80 | 16,37 | 65.527,01 |
| LEHEN HEZKUNTZA | 1.391 | 0 | 54.867,13 | 72,47 | 9.463,56 | 12,50 | 11.374,75 | 15,03 | 75.705,44 |
| DBHko LEHEN ETA BIGARREN MAILAK | 1.652 | 0 | 68.911,03 | 74,97 | 9.528,99 | 10,37 | 13.482,05 | 14,66 | 91.922,07 |
| DBHko HIRUGARREN ETA LAUGARREN MAILAK | 1,728 | 0 | 78.321,37 | 74,40 | 11.815,71 | 11,22 | 15.133,17 | 14,38 | 105.270,25 |
| DBH eta LEHEN HEZK. 2. ETA 3. MAILAK | 1.391 | 0 | 63.051,16 | 71,89 | 9.521,32 | 10,86 | 15.133,17 | 17,25 | 87.705,65 |
| DBH CURRICULUM EGOKITUKO PROGRAMA | 0,957 | 0,652 | 70.389,23 | 72,66 | 11.352,08 | 11,72 | 15.133,17 | 15,62 | 96.874,48 |
| BATXILERGOA | 1,652 | 0 | 72.266,61 | 72,08 | 12.865,40 | 12,83 | 15.133,17 | 15,09 | 100.265,18 |

| HEZKUNTZA MAILA | IRAKASLE RATIOA | | LANGILEEN SOLDATAK | MODULUA % | GASTU ALDAKORRAK | MODULUA % | BESTE GASTU BATZUK | MODULUA % | LANGILE OSAGARRIAK | MODULUA % | MODULUA, GUZTIRA |
|--|-----------------|-----------|--------------------|-----------|------------------|-----------|--------------------|-----------|--------------------|-----------|------------------|
| | TITULARRA | AGREGATUA | | | | | | | | | |
| HEZKUNTZA BEREZIA Ikasgela Alternatiboa (Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza) | 1.087 | 0 | 42.864,95 | 44,43 | 5.865,36 | 6,08 | 11.374,75 | 11,79 | 36.374,71 | 37,70 | 96.479,77 |
| HEZKUNTZA BEREZIA EU/AEN (Egokitzapen ikasgela) | 1.087 | 0 | 42.864,95 | 48,17 | 5.865,36 | 6,59 | 11.374,75 | 12,78 | 28.881,32 | 32,46 | 88.986,38 |
| HEZKUNTZA BEREZIA Ikasgela Alternatiboa (Bigarren Hezkuntza) | 1.391 | 0 | 54.867,13 | 47,82 | 5.850,92 | 5,10 | 11.374,75 | 9,91 | 42.641,42 | 37,17 | 114.734,22 |
| LHBZ | 1.087 | 1,087 | 87.934,17 | 51,64 | 14.133,25 | 8,30 | 15.133,17 | 8,89 | 53.089,84 | 31,17 | 170.290,43 |
| HIP | 0.696 | 0.391 | 43.658,49 | 48,21 | 6.649,64 | 7,34 | 11.374,75 | 12,56 | 28.881,32 | 31,89 | 90.564,20 |
| Oin. CBU Un. Espezifikoa | 1,391 | 0 | 54.867,13 | 76,11 | 5.850,92 | 8,12 | 11.374,75 | 15,77 | | | 72.092,80 |

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

| ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK | IKASMAILA | IRAKASLE RATIOA | | LANGILEEN SOLDATAK | MODULUA % | GASTU ALDAKORRAK | MODULUA % | BESTE GASTU BATZUK | MODULUA % | MODULUA, GUZTIRA |
|--|-----------|-----------------|-----------|--------------------|-----------|------------------|-----------|--------------------|-----------|------------------|
| | | TITULARRA | AGREGATUA | | | | | | | |
| 1- KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA EMHZ (HLO) | 1. | 0,478 | 1,087 | 66.743,16 | 68,30 | 11.046,39 | 11,30 | 19.929,57 | 20,40 | 97.719,12 |
| | 2. | 0,826 | 0,568 | 60.985,44 | 67,09 | 9.980,27 | 10,98 | 19.929,57 | 21,93 | 90.895,28 |
| 2- KUDEAKETA ADMINISTRATIBOA, HIRU URTEAN EMHZ (HLO) | 1. | 0,478 | 0,435 | 39.701,62 | 66,47 | 6.736,91 | 11,28 | 13.286,36 | 22,25 | 59.724,89 |
| | 2. | 0,304 | 0,609 | 39.031,27 | 66,10 | 6.727,65 | 11,39 | 13.286,36 | 22,51 | 59.045,28 |
| | 3. | 0,565 | 0,348 | 40.036,82 | 66,66 | 6.741,56 | 11,22 | 13.286,36 | 22,12 | 60.064,74 |
| 3- ERIZAINZAKO ZAINKETA LAGUNGARRIAK EMHZ | 1. | 0,435 | 1,304 | 73.786,59 | 69,92 | 12.326,10 | 11,68 | 19.417,14 | 18,40 | 105.529,83 |
| | 2. | 0,261 | 0 | 11.822,09 | 67,26 | 2.265,54 | 12,89 | 3.488,23 | 19,85 | 17.575,86 |
| 4- SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA EMHZ (HLO) | 1. | 0,348 | 1,522 | 78.859,73 | 63,18 | 12.967,79 | 10,39 | 32.997,95 | 26,43 | 124.825,47 |
| | 2. | 0,913 | 0,609 | 66.616,43 | 60,34 | 10.794,10 | 9,78 | 32.997,95 | 29,88 | 110.408,48 |
| 5- AURREINPRIMAKETA DIGITALA EMHZ (HLO) | 1. | 0,609 | 1,043 | 70.851,37 | 62,69 | 11.720,08 | 10,37 | 30.451,56 | 26,94 | 113.023,01 |
| | 2. | 0,261 | 0 | 11.822,09 | 67,26 | 2.265,54 | 12,89 | 3.488,23 | 19,85 | 17.575,86 |
| 6- ARTE GRAFIKOTAKO INPRIMAKETA EMHZ | 1. | 0,652 | 0,739 | 60.202,69 | 61,07 | 9.967,03 | 10,11 | 28.416,76 | 28,82 | 98.586,48 |
| | 2. | 0,609 | 1,043 | 70.851,37 | 62,69 | 11.720,08 | 10,37 | 30.451,56 | 26,94 | 113.023,01 |
